

Argitalpena:
Zarauzko Udala

Egileak:
Zarauzko Arkamurka Natura-Elkarteko
Ornitologia-saileko:
A. Aldalur, E. Azkue, P. Izkeaga,
A. Leiza eta J. Unzueta

Argazkiak:
A. Aldalur, K. Lizundia, A. Leiza, B. Mutiozabal,
R. Rodriguez, A. Ruiz eta J.M. Ruiz.

Marrazkiak:
A. Ruiz

Koordinatzailea:
A. Sarobe

Testu-zuzenketa:
M. Aizpurua eta A. Sarobe

Diseinua eta maketazioa: Hizki Inprimategia (Zarautz)
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak S.L. Andoain
Lege-Gordailua: SS 1327-2017
ISBN: 978-84-946488-0-9

IÑURRITZAKO HEGAZTIAK

Zarautz



*Txoritua norat hua
bi hegalez airian*

Gure hitzak (Mikel Laboa)

AURKIBIDEA

1. Udalaren aurkezpena	4
2. Hitzaurrea	5
3. Iñurritzako Biotopoa: Babestutako eremua	6
4. Natura-kontserbazioa Iñurritzako Biotopoa	8
5. Estuarioak: eremu biziak	12
5.1 Estuarioetako ekologia	13
5.2 Iñurritzako habitat interesgarriak	14
5.3 Iñurritzako Biotopoen garrantzia hegazti migratzaileentzat	24
6. Iñurritzako Biotopoa egindako ikerketak	26
7. Hegaztiak behatzeko aholkuak	27
8. Iñurritzako hegaztien egutegia	28
9. Iñurritzako 100 hegazti: aurkibide alfabetikoa, argazkiak eta informazioa	29
10. Bibliografia osagarria	131

1. UDALAREN AURKEZPENA

Zarauzko Udaleko Ingurumen Sailak gure herrian dauden naturaren altxorak babestea du helburu nagusia eta, horrekin batera, altxor hori herritarrei ezagutaraztea, natura hori gozatu, errespetatu eta zaintzeko, ezinbestekoa delako lehenik ezagutzea. Basoak, hezeguneak, errekek, dunak, labarrak... eskura ditugu eta denon artean zaindu eta babestu behar ditugu. Ahalegin horren baitan, besteak beste, Iñurritzako Hegaztiak jasoko dituen azterlana egitea eskatu dio herriko Arkamurka Natur Taldeari. Elkarlan horren emaitza da esku artean dugun liburuxka hau. Bertako edukiak eta iritziak Arkamurka Natur Taldearenak dira. Gure desioa da guztiok liburuaz gozatzea eta gure natura zaintzeko balio izatea.

Gloria Vázquez Herranz
Ingurumeneko zinegotzia

An aerial photograph of a coastal landscape. In the foreground, a river winds through a green area that includes a golf course. To the right, there are several buildings with red roofs. In the background, a sandy beach meets the ocean with waves breaking. The sky is clear and blue.

2. HITZAURREA

Zarauzko Arkamurka Natura-Elkarteak urteak daramatza gure herriko ekialdean dagoen natura-ondarea aztertu eta zaintzen. Taldea sortu zenetik etengabea izan da Talaimendin barrena Iñurritza, Ihidieta eta Astik osatzen duten eremuaren natura-ondarea ikertu, dibulgatu edota kontserbatzeko ahalegina. Izan ere, Iñurritza erreka osatzen duen estuarioaren azalera txikia da, baina bere baitan gure inguruko estuarioetan ikus daitezkeen ekosistema eta habitat tipiko guztiak ditu, eta horrek berebiziko garrantzia ematen dio.

Zarautz giza presio handia jasaten duen herria da. Aspalditik turismoak pisu handia izan du herri honen ekonomian, eta, ondorioz, garaian garaiko turismo-ereduari erantzuteko ekimenek herriko lurren okupazioa eta etengabeko urbanizatzea eragin du. Hala, ekialdeko eremuak mantentzen du Zarauzko lautadak berezkoa duen izaera, eta eremu hau da hirirtatu aurreko garaietako lurraren izaera eta erabilera ikusteko gelditzen zaigun aukera bakarra.

Alabaina, Iñurritzako eremuak aldaketa handiak jasan ditu. Igeri egiten erreka horretan ikasi zuten zarauztarren belaunaldi berberak ezagutu zuen inguru horiei Río Peste deitzerainoko kutsadura lotsagarria, Zarauzko komunetako eta iturrietako urak tratatu gabe errekarara isurtzen ziren garaian. Alta, hein batean Iñurritzan bertan ("*kanalean*", zarauztarren hitzetan) kokatu zen lehenik porrot egin zuen emisarioak eta gerora ur zikinen araztegiak bueltatu zioten duintasuna errekarari, eta ume zirenetik kanalarari bizkarra emanda bizi izan ziren haiek orain pasieran hurbiltzen dira bertan zer ikusiko.

Zarauztarrentzat, eta bereziki Iñurritzakoentzat, kuttuna zen eremua berreskuratu da. Guztona da zaindu eta duen balioa aitortzeko ardura.



3. IÑURRITZAKO BIOTOPOA: BABESTUTAKO EREMUA

Zarazuko ekialdeko eremu hau 1997. urtean babestu zen (40/1997 DEKRETUA, otsailaren 25ekoa, Iñurritza ingurua babestutako biotopo deklaritzen duena). Babes Dekretuan bertan zehazten da Iñurritza erreka-estuaria eta itsas aldeko eremua euskal kostaldeko ekosistemen erakusgarri bikaina direla. Hitzez hitz dio: *Duna, padura eta labarrek paisaia bereziki erakargarria osatzen dute, eta beren baitan beharizan ezberdinak dituzten landare zein animalia-espezie ugari hartzen dituzte, espezializaturiko eta elkarren artean erlazonaturiko komunitate-mosaikoa sortuz. Izen-*



dapen-dekretuan aipatzen da eremu honek habitat naturalak birsortu eta leheneratzeko aukera onak eskaintzen dituela, eta horrek ere interes handiko eremu bihurtzen duela.

Ondoren eta Europako legediari erantzunez, mende honen hasieran GKL (Garrantzi Komunitario-ko Lekua) izendapenarekin **Natura 2000 sarean** sartu zen (ES2120009 kodea eman zitzaion). Beranduago, 2012. urtean, Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) bihurtu zen. Azken izendapen honekin babestutako eremuaren kudeaketarako irizpideak ezarri ziren, eta bertako ondare naturala behar bezala ezaugarritu eta berreskuratzeko konpromisoa hartu zen.

4. NATURA-KONTSERBAZIOA IÑURRITZAKO BIOTOPOAN

Iñurritzako Biotopo Babestuaren izenpean 177.200 metro karratuko eremua babestu zen, denak Zarauzko lurrak. Dekretuan jasotzen da eremu hau kostaldeko ekosistemek osatzen duten paisaiaren erakusgarri bikaina dela, eta bere txikitasunean estuarioek izan ohi dituzten elementu guztiak jasotzen dituela. Natura 2000 Sarean sartu zenean eremu horretako, garrantzi komunitarioko habitatak zerrendatu ziren, guztira babestutako eremu osoaren % 78a osatuz. Izendapen horretan garrantzi komunitarioko animalia-espezie bat, tximeleta bat (*Euphydrias aurinia*), eta beste hainbat landare-espezie ere zerrendatu ziren: iratze bat (*Trichomanes speciosum*) eta du-netako ia landare-espezie gehienak.

Natura 2000 sarean sartuta dauden eremu guztiek kudeaketa-plan bat onartu behar dute sare horretan jarraitu ahal izateko, eta plan horiek Kontserbazio Bereziko Lekuak (KBL) izendapenarekin onartzen dira. Izendapen hau 2012. urtean jaso zuen eta ordutik Gipuzkoako Foru-Aldundiari dagokio plan hori garatu eta gauzatzeari. Oraindik bada argitzeko dagoen kontu bat; Izan ere, Iñurritzako Biotopoa izendatu zenean bistakoa zen Talaimendin egin zen mugaketa motz gelditze zela, Aiako lurrak ez baitziren babestutako eremuaren barruan sartu. Horregatik, KBLarekin Biotopoko jatorrizko eremua handitu nahi izan da, Talaimendiko Aiako lurrak babestutako eremuan sartuz, eta auzia ebatzi gabe badago ere, lehenbailehen muga horiek handitu eta finkatzea espero da.

Aipatu da nola Biotopo Babestuaren izendapen-dekretuan bertan jasotzen den eremuak *habitat naturalak birstortu eta leheneratzeko aukera onak eskaintzen zituela*. Horrela, 2010. urtean Iñurritzako Biotopoa bertako natura-eremua berreskuratzeko obrak hasi ziren urte batzuk lehenago onartutako Plan Berezia gauzatzeko (Diputatuen Kontseiluak, 2006ko ekainaren 6ko batzarraldian onartutako Zarauzko Iñurritzako Biotopo Babestuaren Plan Berezia. GHI-120/04-P08). Aipatutako

planak Iñurritzako eremua birmaturalizatzea zuen helburu, padurak berez izan beharko lukeen eremua (berdez) eta dunaren atzealdea beharko lukeena (urdiraz) berreskuratuz (Ikus 3.irudia). Gainera, dunaren azpian dagoen eta ur geza duen putzua/akuiferoa azalerazi zen, obrak hasi aurretik baratzeek osatzen zuten eremuko azaleko lur landua kenduta. Azken esku-hartze honen helburua garai batean Zarautzen ohikoak izango ziren zingirak ikus araztea izan zen (gorritz), Zarautzek dunaren atze aldean duela milaka urte izango zuen itxura irudikatzen (Ikus 1. eta 2. Irudiak). Beraz, Plan Berezia eskutik egindako esku-hartzeekin estuarioaren ertzetako fisiologian eta morfologian aldaketa handiak eragin ziren.


Iñurritzako Biotopo Babestutako habitatak.



Iñurritzako KBLko muga



1988. urtean Zarautz herriko alde zaharrea lur azpiko garaieak egiteko obrek historiaurreko aztarnategia bistaratu zuten. Handik jasotako aztarnek Zarautz duela milaka urte nolakoa izango zen irudikatu ahal izan da, eta habitat-aniztasun hura berreskuratu nahi izan zen 2010. urteko obrek.



1. Irudia. Herriko Barra kalea duela 8000 urte.



2. irudia. Zarautz duela 8000 urte.



3. irudia. Berreskuratutako eremu naturalak 2010eko obrak egin eta gero.

Estuarioak oso eremu biziak dira. Inurritza erreka estuarioak bere baitan gure inguruko estuarioetan ikus daitezkeen ekosistema eta habitat tipikoak ditu, bizileku horiek berezkoak dituzten dinamikekin eta bioaniztasunarekin. Bestalde, 2010ean gauzaturako Plan Bereziaren eskutik egindako esku-hartzeekin padura-eremu zabala berreskuratu zen, eta obrak egin aurretik barazeak zeuden eremu handi batean ur gezak putzu handi bat azaleratu zen.

Esku-hartze hauek habitat berriak sortu edota zeudenak eraldatu zituzten, baina dinamika naturalaren poderioz esanguratsuki ari dira aldatzen (adibidez, kolmatatzen) eta horrek ondorioak dakartza bertako bioaniztasunean. Begibistakoa da obra egin zenetik 5 urtera modu artifizialean sortutako ur gezako putzuaren bilakaera, putzua ia ezkutatzerraino zabaldu baita lezkadia.



Eremua 2010a baino lehen.



Eremua 2015ean.



Ur gezako putzua 2014an, ur-azalera handiarekin.



Ur gezako eremua 2016an, lezkak hartua.

Habitat horien bilakaerak hainbat espezieen presentzia baldintza lezake, eta dagoeneko hasiak gara muga horiek ikusten. Esaterako, 2014. urtean ur gezako putzuan dauden irla-txo bateko landareak kendu ziren eta legarra zabaldu, eremu irekiak maite dituen txirritxo txikiak (*Charadrius dubius*) habia egiteko lekua ez galtzeko.

Bukatzeko, ezin ahaztu 2015. urtean itsasoak erasandako duna enbrionarioaren gainean egindako egurrezko pasabide altxatu berria. Pasabide-mota hori altxatua jartzearen arrazoia azpiko harearen mugimenduak erraztea izan zen, horrela dunaren dinamika naturalari lagunduko zaiolakoan.

Īnurrizako Biotopoa berreskuratzeko ahalegina handia izaten ari da. Hainbat dira hartu diren eta etorkizunean hartu beharko diren neurriak. Guztiak, ordea, ez dute askotarako balioko bertara hurbiltzen garenok ez baditugu arauak errespetatzen eta bertako landare eta hegaztiakiko begirunea erakusten.

5. ESTUARIOAK: EREMU BIZIAK

Estuarioak (inguruko herrietan *errioa* deitua) itsasoa ibaian barna sartzen den lekuak dira, alegia, ibaiaren bokalean, marearen eta olatuen eraginez itsasoko ur gazia ibaiko ur geza-rekin nahasten den eremu zabalak. Itsasoa eta ibaia, biak ala biak ekosistema indartsu eta dinamikoak dira, eta ondorioz, elkar topatzen direneko eremu hauek aldakorak eta biziak dira ezinbestean.



Murrua (gorriz) ur geza eta gazia bereizten.



Iñurritzako estuarioa itsas beheran.

5.1 Estuarioetako ekologia

Estuarioetako bizitza eta baldintza fisiko-kimiko eta biologikoak marearen eguneroko gorabeheren eta ibaiaren emariaren baitan daude. Itsasoko ura ibaiko baina gaziagoa da eta dentsitate eta temperatura handiagokoa. Ibaiko ura, aldiz, uherragoa da, uretan disolbatuta edo suspentsioan materia organiko eta inorganiko asko ekartzen duelako, eta oxigenoan aberatsagoa. Itsasoak irekitako eremu honetara ibaia lasai eta abiadura motelagoarekin iristen denez, eta marea igotzean itsasotik datorren urak erreka baten itsasoratzea moteltzen duenez, erreka dakarren materia hori guztia hondoratu egiten da, materia organikoan hain aberatsak diren padurak sortuz.

Euskal Herriko guztiak bezala, Iñurritzakoa sakonera txikiko estuario meso-makromareala da: marea bizietan marea igotzen denean itsasoko ura estuario osora zabaltzen da, eta jaistean eremua erabat husten da. Alegia, marea goran kanaleko ura gazia da, eta marea beheran erreka ur geza gelditzen da.

Hauxe litzateke berez eremu osoan ikusi beharko genukeena, baina, Iñurritza erreka ezkerreko hormak, murrak, beste dinamika bat sortzen du. Murru horri esker mantentzen dira Zubiaurre-Berriko baratzeak (Ikus * argazkian) eta urmaela, ur gaziari ez zaiolako uzten alde horretara zabaltzen.

Iñurritzako erreka dagokionez, arto itxia osatzen du: Pagoetan barrena isurtzen diren ur guztiak jasotzen ditu, Santa Barbara azpiko tuneletik itsasoratzen diren Igerain erreka baten salbu. Beraz, ia lautadako ur guztia ekialdetik itsasoratzen da bere garaian dunen artean irekitako bidean zehar. Baina, hau ez da Zarauzko ur gezak pilotzen diren sistema bakarra. Iñurritzako eremu horretan guztian lur azpian ur gezako putzu akuifero handi bat dago, eta horrek elikatzen du Ixpillako urmaela (Ikus ** argazkian).



Zarauzko arro hidrografikoa.

5.2 Iñurritzako habitat interesgarriak (hauetako hainbat, interes komunitariokoak)

Iñurritzako Biotopoa eremu txikia izanda, gure kostaldeko habitat guztiak hartzen ditu bere baitan: labarrak, dunak, padura, lezkadiak (aintzirak) eta haltzadiak. Hauxe da eremu honen baliarik handiena, bertako habitatek (bizidunen bizi-eremuen) eta bioaniztasunak Euskal Herriko estuarioen erakusgarri egiten dutela.

A) LABARRAK (MALLA HARRIAN)

Kaioek eta ubarroiak gustuko dituzte Malla Harriko irlatxoak. Orduak egiten dituzte pausatuta, deskantsuan eta lumak lehortzen. Lehorretik gertu igarotzen diren beste hainbat itsas hegazti ere beha daitezke: txenadak, marikiokak, gabaia, martinak, pottorak etab. Duela urte gutxi arte Malla Harrin ubarroi handiak lotegi edo etzan-leku handiak osatzen zituen eta, agian, etorkizunean ere ikusiko dugu horrelakorik. Labar hauetan itsas hegaztiak ez diren hainbatek ere egiten dute habia, esaterako, belatz handiak edota erroiak. Labarrak gustuko dituzten txori txikiak ere noiznahi ikus litezke. Bestalde, inoiz edo behin eta adi-adi begiratuta, zetazeoak (izurdeak) edota baleren baten arnasketa ikustea ere gerta liteke.

Malla Harriko irletarako irispidea librea da gaur egun, eta marea beheran arrunta da bertan jendea ikustea. Horrek hegaztiak uxatzen ditu, eta ziurrenik, hainbat hegaztik bertan habiak egitea ekiditen du (ikus izan baitira inoiz, esaterako, kaio hankahorien habiak).



Malla Harriko harraldea airetik.



Malla Harriko harraldea



Malla Harria



MALLA HARRIKO HEGAZTIAK (Ilkus 31-38 orrialdeak)

Habia egiten duten hegaztiak:

Belatz handia (*Falco peregrinus*), belatz gorria (*Falco tinnunculus*), harkaitz-zozo urdina (*Monticola solitarius*), buztangorri iluna (*Phoenicurus ochruros*), erroia (*Corvus corax*)

Urte osoan ikus daitezkeenak (inguruan habia egiten dutelako):

Ubarroi mottoduna (*Phalacrocorax aristotelis*), kaio hankahoria (*Larus michaelis lusitanicus*)

Negutarrak:

Ubarroi handia (*Phalacrocorax carbo*), kaio beltza (*Larus marinus*), kaio iluna (*Larus fuscus*)

B) LANDAZABALA (TALAIMENDIN)

Gure kostaldearen % 80a kostalde harritsu da, labarrez eta mendiz osatua. Hain eremu zabala izanda ere, Talaimendi bezalako eremuei ez diegu arreta handirik jartzen, baina sega-belardiek, txilardegi-otadiak, zuhaixkek eta amezti, harizti edo pinudiek eta orain mahastiek, osatzen duten mosaiko itxurako paisaiak natura-ikuspegitik balio handia du, eta horregatik, Iñurrizako Talaimendiko landazabala interes komunitariokoa izendatu da Natura 2000 sarean (1230 kode-zenbakiarekin). Eremu zabal horretan bereziki aipatzen dira ondorengo habitatak: txilardi lehor europarra (4030 kodearekin) eta sega-belardiak (6510 kodearekin). Izendapen hauek argi erakusten dute natura-ondarearen ustiapenak bioaniztasuna emendatu dezakeela, betiere natur kontserbazioarekin bateragarria denean.

Landazabalean eguneko eta gaueko harrapariak eta txori txikiak topa ditzakegu. Harraparien artean arruntena zapelatza da, baina ikusten dira, baita ere, belatz gorria, zuhaitz-belatza, edota mirotz zuria. Bestalde, ikusten zailak badira ere, erraz entzun litezke gaueko harrapariak, esaterako, urubia edo mozoloa. Txori txikientzat eremu benetan aberatsa da landazabala, udaberriko arratsetan paregabeko sinfoniak entzuteko aukera eskaintzen dute, han dabiltzan seinale.

Eremu osoan bezala, Talaimendiko hegazti-kopurua eta aniztasuna asko hazten da pase-garaietan. Garai horietan hainbat txori txiki ezberdinekin batera miruak edota arrano arrantza-lea bezalako harrapari handiak ikusten dira. Bestalde, neguko hotzak eta elurrak hegaberak ekartzen ditu Talaimendiko zelaietara.

TALAIMENDIKO HEGAZTIAK (Ikus 39-78 orrialdeak)

Habia egiten duten hegaztiak:

Zapelatza (*Buteo buteo*), urubi arrunta (*Strix aluco*), zata arrunta (*Caprimulgus europaeus*), lepizulia (*Jynx torquilla*), uda txirta (*Anthus trivialis*), txepetxa (*Troglodytes troglodytes*), tuntun arrunta (*Prunella modularis*), txantxangorria (*Erithacus rubecula*), pitxartxar burubeltza (*Saxicola torquata*), zozoa (*Turdus merula*), birigarro arrunta (*Turdus philomelos*), benarriz nabarra (*Locustella naevia*), sasi-txori arrunta (*Hippolais polyglotta*), etze-txinboa (*Sylvia undata*), txinbo burubeltza (*Sylvia melanocephala*), txinbo kaskabeltza (*Sylvia atricapilla*), baso-txinboa (*Sylvia borin*), sasi-txinboa (*Sylvia communis*), txio iberikoa (*Phylloscopus ibericus*), erregetxo bekainduna (*Regulus ignicapillus*), euli-txori grisa (*Muscicapa striata*), buztanluzea (*Aegithalos caudatus*), amilotx urdina (*Parus caeruleus*), kaskabeltz handia (*Parus major*), antzandobi arrunta (*Lanius collurio*), Araba zozo pikarta (*Sturnus vulgaris*), etxe-txolarrea (*Passer domesticus*), landa txolarrea (*Passer montanus*), txonta arrunta (*Fringilla coelebs*), txirriskil arrunta (*Serinus serinus*), txorru arrunta (*Carduelis chloris*), karnaba (*Carduelis carduelis*), txoka arrunta (*Carduelis cannabina*), hesi-berdantza (*Emberiza cirrus*), gari-berdantza (*Miliaria calandra*).

Negutarrak:

Hegatxabal arrunta (*Alauda arvensis*), negu-txirta (*Anthus pratensis*), txio arrunta (*Phylloscopus collybita*).

Migrazioan ikusten diren hegaztiak:

Galeperra (*Coturnix coturnix*), hegabera (*Vanellus vanellus*), usapala (*Streptopelia turtur*), argi-oilarra (*Upupa epops*), hegatxabal arrunta (*Alauda arvensis*), pitxartxar nabarra (*Saxicola rubetra*), buztanzuri arrunta (*Oenanthe oenanthe*), birigarro txikia (*Turdus iliacus*), sasi-txinboa (*Sylvia communis*), txio horria (*Phylloscopus trochilus*), txio arrunta (*Phylloscopus collybita*), eulitxori beltza (*Ficedula hypoleuca*), antzandobi kaskagorria (*Lanius senator*).

c) DUNA ETA HAREATZA

Hareatzek antzina orain baino eremu askoz zabalagoak osatuko zituzten Euskal Herrian. Kostaldeko herriek pixkanaka-pixkanaka ia guztiz desagertzera ino zokoratu dituzte ekosistema hauek, eta gaur gaurkoz Zarauzkoa da kontserbatu den Euskal Herriko duna enbrionario eta primario aberatsena. Duna-sistema interes geologiko eta biologiko handiko eremua da, bertako flora psammofiloak arreta berezia merezi du banaketa urriko landareek eta landare endemikoek osatzen dutelako. Bertako landaredia zaugarria da, eta hainbat eta hainbat espezie babestuta edota desagertzeko zorian zerrendatuta daude. Inurritzako dunetako habitatak interes komunitariokoak izendatu ziren Natura 2000 sarean (2133 eta 2127 kodeekin).

Duna-eremuan golfaren jarduerak eta egin berri den pasabidean etengabe dabilen jendeak hegaztien atsedendaldia eta elikadura galarazten du, landare endemikoen kontserbazioa eta hedapena eragoztearekin batera. Pasabidean jarri den sarea ezin pasaz maiz ikusten dira txoriak. Behin baino gehiagotan adierazi dugu bateraezinak direla golf-jarduera eta eremu horren naturalizazioa, eremu oso txikia dela kontuan hartuta.

Eremu hau hegazti migratzaile askok erabiltzen dute atsedean hartzeko. Aipatzekoa da udaberrian kurlintek belardi horietara egiten duten bisita, hain ikusgarriak izanda zarauztarrentzat izen propioa jarri baitiete: maiatz-kulixkak.



DUNAKO HEGAZTIAK (Ikus 79-85 orrialdeak)

Negutarrak:

Kaio eta antxetak (ingelesez eta frantsesez bezala, euskaraz kaioak tainaren arabera bereizten dira: handiei kaioak deitzen diegu eta txikiei antxetak), antxeta burubeltza (*Larus melanocephalus*), buztanikara zuria (*Motacilla alba*), negu-txirta (*Anthus pratensis*).

Migrazioan ikusten diren hegaztiak:

Txirri zuria (*Calidris alba*), kurlinta bekainduna (*Numenius phaeopus*), itsas txirta (*Anthus petrosus*), buztanzuri arrunta (*Oenanthe oenanthe*), txenada hankabeltza (*Sterna sandvicensis*).

Duna-sistema osoa.

Dunak udan jasaten duen presioa.



D) PADURA (KANALEAN)

Paduretan materia organiko asko pilatzen da eta ustelketa-prozesuak garrantzi handia hartzen du. Ondorioz, bioaniztasun handiko eremuak dira eta, hegaztien kasuan, hegazti moko-eta zango-luzeentzat beren elikagai diren animaliak bilatzeko eremu paregabeak. Limoetako hegaztientzat eremu hauek, hondartza eta hareatza bezala, garrantzitsuak dira euren migrazioetarako. Zarauzko padura (kanal-aldean hedatua) asko zabaldu bada ere, eremuak txikia izaten jarraitzen du eta hegaztiak, bertan luzaz elikatzen baino gehiago, atsedean hartzeko baliatzen dute.

Zarautzen beti erreparatu izan dugu bazirela hainbat hegazti migrazio-garaietan kanaleko eremu horretan agertzen zirenak, eta bi taldetan banatu izan dira: handiei kulixkak deitu izan zaie eta txikiagoei txilipotak. Txosten honetan ikusten denez, handiagoa da dibertsitatea.

Debekatuta badago ere, ikusten da jendea, batik bat uda partean, oinez erreka pasatzen, golfariak pilotak jasotzen, biotopo barnean paddle egiten eta barneko hondartzara sartzen. Jokabide honek bertako hegaztiak uxatzen ditu, haien atsedena edota ugalketa eragotziz, edo habiak zapuzten.

Udaberri-uda partean arruntak dira bertan txirriak, txirritxoak, kulixkak, kurlintak etab. Moko-zabalaren agerpena, berriz, pozik hartzen den berria da, hain hegazti handia eta dotorea izanda, ez baita oharkabean pasatzen. Badira, ordea, urte osoan ikusten ditugun hegaztiak ere: lertxun hauskara, lertxuntxo txikia, uroilo arrunta edota basahateak, esate baterako.

Padura berreskuratze lanen ondoren (2012).



Berreskuratze-lanak bukatu eta berehala padura biluzik eta lokazti gelditu zen (ikus 2012ko argazkian). Urte gutxian naturalizatu egin da gaur egun duen itxura hartu arte (ikus bi argazkien arteko desberdintasuna).

PADURAKO HEGAZTIAK (Ikus 86-110 orrialdeak)

Habia egiten duten hegaztiak:

Basahatea (*Anas platyrhynchos*), ur-oilanda handia (*Rallus aquaticus*), uroiloa (*Gallinula chloropus*), txirritxo txikia (*Charadrius dubius*), errekatxindorra (*Cettia cetti*), ihi-txoria (*Cisticola juncidis*).

Negutarrak:

Ubarroi handia (*Phalacrocorax carbo*), amiltxori arrunta (*Nycticorax nycticorax*), lertxuntxo txikia (*Egretta garzetta*), lertxun hauskara (*Ardea cinerea*), txirritxo handia (*Charadrius hiaticula*), urre-txirri arrunta (*Pluvialis apricaria*), martin arrantzalea (*Alcedo atthis*), buztanikara horia (*Motacilla cinerea*).

Migrazioan ikusten diren hegaztiak:

Ahate txistularia (*Anas penelope*), ipar-ahatea (*Anas strepera*), ahate mokozebala (*Anas clypeata*), zertzeta arrunta (*Anas crecca*), lertxun gorria (*Ardea purpurea*), mokozebala (*Platalea leucorodia*), zankaluzea (*Himantopus himantopus*), txirritxo handia (*Charadrius hiaticula*), txirri grisa (*Pluvialis squatarola*), txirri lodia (*Calidris canutus*), txirri kurlinta (*Calidris ferruginea*), txirri arrunta (*Calidris alpina*), istingor arrunta (*Gallinago gallinago*), kuliska gorria (*Limosa lapponica*), kuliska txikia (*Actitis hypoleucos*), kuliska zuria (*Tringa nebularia*), bernagorri arrunta (*Tringa totanus*), antxeta mokogorria (*Larus ridibundus*), larre-buztanikara (*Motacilla flava*), paparurdina (*Luscinia svecica*).



Padura 2016. urtean.

E) URMAELA (IXPILLAN)

Ur gezako putzu hau 2010. urtean egindako esku-hartzearen ondorioz sortu zen. Obrak egin ostean putzua hondarrak inguratzen zuen, baina pixkanaka zabaltzen ari den lezkadia urmaeletako hegaztientzat habitat egokia bihurtu da. Gero eta gehiago dira bertan habia egiten duten hegaztiak, esaterako, uroilo arrunta, kopetazuria, uroilanda handia edota txilinporta txikia.

Lezkadi eta aintziretako habitatak natura-ikuspegitik garrantzi berezia dute bertakoak diren hegaztiak nabarmen gutxitu direlako azken hamarkadetan, honelako guneen faltaz.

Zarautzen horrelako eremua berreskuratu izana pozik egotekoa da, eta horregatik ondo zaindu beharko genuke. Sarri ikusten ditugu debekatutako ekintzak: txakurrak hegaztiak uxatzen, jendea debekatutako eremuetan pasieran, golfeko jokalariai euren eremutik kanpo ateratzen etab.



Urmaela 2016. urtean.

URMAELEKO (UR GEZAKO PUTZUKO) HEGAZTIAK (Ikus 111-130 orrialdeak)

Habia egiten duten hegaztiak:

Basahatea (*Anas platyrhynchos*), txilinporta txikia (*Tachybaptus ruficollis*), uroilanda handia (*Rallus aquaticus*), uroiloa (*Gallinula chloropus*), errekatxindorra (*Cettia cetti*), ihi-txoria (*Cisticola juncidis*), lezkari arrunta (*Acrocephalus scirpaceus*), etxe-txolarrea (*Passer domesticus*).

Negutarrak:

Lertxuntxo txikia (*Egretta garzetta*), lertxun hauskara (*Ardea cinerea*), kopetazuri arrunta (*Fulica atra*), txio arrunta (*Phylloscopus collybita*), zingira-berdantza (*Emberiza schoeniclus*).

Migrazioan ikusten diren hegaztiak:

Ahate mokozabala (*Anas clypeata*), lertxun gorria (*Ardea purpurea*), mokozabala (*Platalea leucorodia*), uholde-enara (*Riparia riparia*), enara arrunta (*Hirundo rustica*), enara azpizuria (*Delichon urbica*), larre-buztanikara (*Motacilla flava*), paparurdina (*Luscinia svecica*), benarriz arrunta (*Acrocephalus schoenobaenus*), ur-benarriza (*Acrocephalus paludicola*), lezkari-karratxina (*Acrocephalus arundinaceus*), txio horia (*Phylloscopus trochillus*), dilindaria (*Remiz pendulinus*).



5.3 Iñurritzako Biotopoaren garrantzia hegazti migratzaileentzat

Estuarioak, gainerako hezeguneak bezala, eremu oso garrantzitsuak dira hegazti migratzaileentzat, elikatzeko eta atsedean hartzeko baliatzen baitituzte euren bidaia luzeetan. Aspaldiko kezka da eremu hauen kontserbazioa, eta horren ondorio izan zen Irango Ramsar hirian 1971n sinatu eta 1975ean indarrean jarri zen RAMSAR hitzarmena (Nazioarteko Garrantzidun Hezeguneei Buruzko Hitzarmena, bereziki Uretako Hegaztien Habitat Gisa). Hitzarmen honen xedea hezeguneei kontserbazioa eta erabilera arduratsua bermatzea da, tokiko, eskualdeko eta nazioarteko ekintzen bidez eta nazioarteko laguntzari esker, mundu osoan garapen sostengarria gauzatzeko. 2007an mundu osoko 154 estatu batu ziren aipaturiko akordio honetara, 1401 hezegune babes-tuz (146,4 milioi hektareako hedadura).

Euskal Herrian Txingudi eta Urdaibai daude sare honetan, eta Iñurritzak bertan sartzeko baldintzarik betetzen ez badu ere, bere txikitasunetik ekarpen handia egiten dio sare horren xedeari. Izan ere, Kantauri Itsasoko kostaldeko estuario txiki guztiak sistema bakarraren parte dira hegazti hauentzat, batetik bestera txango txikiak eginez eta beraietan atsedean laburrak eginez osatzen baitute beren migratzaile ibilaldi luzea.



Euskal Herriko estuarioak.

IÑURRITZAKO ESTUARIOAREN KOKAPEN ESTRATEGIKOA EUROPA MENDEBALDEKO LERRO MIGRATZAILEAN


Kantauriko estuario guztiak, ezinbestekoak izanik kostaldeko lerroa jarraituz migratzen duten espezieentzat (aliota, itsas ahate, limikola ugari, ...), Euskal Herrikoek badute beraien garrantzia areagotzen duen beste berezitasun bat, beren kokapen geografiko estrategikoa, hain zuzen.

Mediterraneo Itsasoa oztupo suertatzen da Afrikara joan-etorrian dabilzan hegaztientzat, eta gehienek Gibraltarreko itsasartearen gurutzatzen dute alternatiba gisa. Halaber, Pirinioak ere barrera dira Penintsulan barna migratzen dutenentzat. Ondorioz Kantauri ekialdeko kostaldetik egiten dute joan-etorriko bidea. Azkenik, badira, bi oztupo, horien aurrean negua Penintsula Iberikoan bertan igarotzen dutenak.

Īnurrizaren kokapenak hegazti migratzaileentzat duen garrantziaren ondorioa da orain arte bertan ikusi izan diren hegazti desberdinen zerrenda. 2010. urtean egindako berreskurapen-obren aurretik eta ondoren 200 hegazti-espezie desberdin ikusi eta identifikatu ahal izan dira, eta urtetik urtera luzatzen ari da dagoeneko ikusgarria den zerrenda.

Esan behar da azken urteotan gero eta gehiago direla Īnurrizara hurbiltzen ari diren hegazti-za-leak, eta eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu guztiei, Arkamurka Natura-Elkartera bidaltzen dizkiguten datu eta argazkiei esker osatzen ari baikara katalogoa. Hauxe da Īnurrizako informa-zioa jasotzen dugun web-orria: <http://inurrizakoak.blogspot.com.es/>

Hurrengo orrietan agertzen dira Īnurrizako eremuan ohikoenak eta adierazgarrienak diren he-gazti-espezieak. Bertan ikusi diren guztien berri jakin nahi duenak jo beza goiko web-gune ho-ретara, etengabe eguneratua baitago Elkarteko ornitogoei esker.



Īnurrizako estuarioaren kokapen estrategikoa.

6. IÑURRITZAKO BIOTOPOAN EGINDAKO IKERKETAK

Babestutako edozein eremuk eskatzen du kudeaketa-plan egokia izatea eta, zer esanik ez, hiri-eremutik hain gertu dauden Iñurritza bezalako eremuek. Kudeaketa-plan horietan jaso beharko lirateke berezkoak diren eta hainbat obren bidez baldintzatu ditugun aldaketen aurrean hartu beharreko neurriak, betiere habitat horien naturalizazioaren eta bertako bioaniztasunaren mesedetan. Esaterako, Iñurritzan premiarioak da duna-eremuaren kudeaketa-plana, golfaren jar-duera erabat ari baita bertako dinamika naturala kaltetzen.

Honetarako, baina, ezinbestekoa da IKERKETA. Berreskuratze lanak egin zirenean (paduran eta ur gezako putzuan) landare eta animalien kolonizazio-prozesuak ikertzeko parada ezin hobea izan zen. Ikerketa-plan jarraiturik ez izatean, hain kaltetuak eta urrituak ditugun kostaldeko ekosistemen ezagutzaren garapena eragotzi ez ezik, balizko esku-hartzeak egiteko informazioa galtzen dugu. Gainera, zailagoa egiten da bertako bioaniztasunaren jarraipena egitea.

Hona hemen hainbat ikerketa esanguratsu:

a) Arkamurka Natura-Elkartean egi(te)n diren ikerketa-lanak:

- Kantauri osoan udaberriko migrazioan egiten ziren limikolen erroldak.
- Ur-hegazti negutarren erroldak.
- Ur-hegazti habiagileen erroldak.
- Lezkadietako onddoak (Ibai Olariaga).

b) Zarauzko Udalak finantzaturako lanak:

- Arkamurka Natur Elkartea (2004): **Iñurritzako Biotopoa: Dunak eta bere landaretza.**
- Aranzadi Zientzia Elkartea (2016). **Zarauzko Dunetako Landaredia.**
- Aizpuru O. eta Alberdi A. (2014). **Zarauzko saguzarren inbentarioa.**
- Tecnalia (2012). **“Moskitoen (*Dipt.Culicidae*) inbentario eta kokapena (fase heldugabeak) Iñurritzako paduran (Natura 2000 sareak babestutako gunea). Espezie molesto eta/edo bektoreen zaintza”.**

c) Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika saileko Dokumentuak eta

Argitalpenak atalean aurki daitezkeenak

(<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/dokumentuak-argitalpenak/>):

- **Censos de aves acuáticas nidificantes en la CAPV.** Hazi (2015).
Medidas de Conservación de la ZEC “ES2120009 - IÑURRITZA”. Ingurumena, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza saila (2012).
- **Estudio de la flora vascular amenazada de los arenales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.** Lurralde antolamendu eta ingurumen saila (2002).
- **Estudio de la flora vascular amenazada de los estuarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.** Lurralde antolamendu eta ingurumen saila (2002).

d) Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten dituen jarraipen-lanak:

- Emisarioaren jariatzen jarraipena. Emisarioa egin zenetik hasitako jarraipen-lanak, 2009ko obra egin ondorengo sedimentazioaren jarraipena. **INSUBek** egina.
- Floraren jarraipen-lanak gehien bat kartografia osatzeko/eguneratzeko eta hazi-bilketak. Horrez gain, eta modu espezifikoa, golfak eraldatutako lur-sailtxoak lehenagoratzeko egitiko saiakeren jarraipena. **Aranzadi Zientzia Elkarreak.**
- Putzu gezan eta inguruetan sortzen diren moskitoen dinamika zehazteko jarraipena.

7. HEGAZTIAK BEHATZEKO AHOLKUAK

Iñurritzako Biotopoak urte osoan jasaten du giza-presioa handia, baina bereziki azpimarratzekoa da udan bertarutzen den pertsona-kopurua. Ondorioz, bertako faunarentzat, eta bereziki hegaztientzat es-tres handiko egoerak suertatzen dira.

Iñurritza bezalako toki batean herritarrek ere parte zuzena hartu beharko lukete errespetuz ez dabile-nari atentzioa hartuz edo zer edo zer esanez. Kasurik egin ezean, herritar arduratsuak badu telefono bat arau-hausteak salatzen: **112**.

HEGAZTI BEHATZAILEAREN DEKALOGOA (American Birding Association (<http://www.aba.org>) elkartearen "hegaztiak behatzeko kode etikotik moldatua)

Hegaztien behaketa izaki bizi horien kontserbazioan oinarrituta egon behar den jarduera da. Askotan, behatzaileok ikusi nahi ditugun hegaztiei eragozpen ugari (batzutan zorigaztokoak) eragiten dizkiegu. Egoera horiek saihesteko asmotan, behatzaile guztiok "ohore kodetzat" onartu beharko genukeen hurrengo dekalogoia proposatzen dizuegu:

1. Saiatu behar da hegaztiei ahalik eta eragozpen gutxien eragitea. Behaketa hobeago edo argazki batek ez du justifikatzen inongo asaldurarik. Erabil itzazu espezie, une eta leku bakoitzeko egokiak diren teknikak.
2. Eragozpenak saihestek berebiziko garrantzia du ugaltze garaian edo kanpotik etorritako paseko hegaztiak errehabilitatzeko atsedena hartzen ari direnean.
3. Hegaztiak behatzeko leku berri bat bisitatzen baduzu, informa zaitetz lehenago nola mugitu behar zaren bertatik eragozpenik ez eragiteko.
4. Informazio edo aipuak zabaldu baino lehen, ziurta ezazu fidagarria eta segurua ote den.
5. Mehatxatutako espezieen ugalketari buruzko informazioa jakitera emateak eragin ditzakeen ondorioak kontuan har itzazu. Ziurta ezazu informazio hori soilik pertsona edo entitate fidagarrietara iristen dela eta bide seguruetatik.
6. Truka itzazu zure datuak beste ornitologoeekin eta helaraz itzazu bertako urtekarirara. Zure koadernoak soilik gelditzen diren aipuak existituko ez balira bezalakoak dira. Datuak jasotzeko gaur egun erabiltzen diren plataforma informatikoak dira: Ornitho (<http://www.ornitho.eus/>) eta eBird (<http://ebird.org/content/ebird/?lang=es>)
7. Sala itzazu dagokion lekuan, edo dagokion arduradunari hegaztiei eta bere inguruari kalte eragin ahal dieten arau-hausteak.
8. Errespetatu itzazu naturaren gainerako erabiltzaileak. Denek ez dute gustuko "txoriak ikustea"; interes sentzibilitate ezberdinak daude.
9. Ahaleginak egin zure hegaztie-kiko esperientziak zabaltzen, ez dakienari gure ingurua hobeto interpretatzeko eta zaintzeko balio izan diezaien.
10. Eredua izan zaitetz zure jarrerarekin.



8. INURRITZAKO HEGAZTIEN EGUTEGIA

URTARRILA	Ubarroi, murgil, anatido eta hainbat limoetako hegaztien negu-tokia. Zingira-berdantzak lezkadietan agertzen dira eta landa txalorreek, fringilidoekin batera, multzo handiak osatzen dituzte. Araba zozoak eta buztanikarak saldo handitan erretirutzen dira lotara, askotan landa eremuak alde batera utzi eta herrietako parkeetan bilatzen dituzte lekuri egokienak. Erroiaren eztei-hegaldiarekin gozatzeko aukera dugu sasoi honetan. Eguna argitzean aurreneko zozoak ere hasten dira kantari txantxangorriarekin batera.
OTSAILA	Talaimendiko belatz handi bikotea bere eztei aurreko hegaldi ikusgarriak eginez dabil, eta, agian, hilaren bukaeran hasiko da arrautzak txitatzen bere habian. Tarinak haltzadietan elikatzen dabil-tza. Dagoeneko hasi dira kantari bertako hegazti egoiliarrak: birigarro arrunta, kaskabeltza, txoka, txirriskila, pitxartxar arrunta, txepetxa... Ixpillako urmaelean txilinportak bero-bero daude, eta zaratatsu dabil-tza.
MARTXOA	Txirritxo txikia iritsi eta kantari hasi da. Baita benarriz nabarra ere, ote artean ezkutatuta. Lehen enarak eta uhalde-enarak iritsi dira eta dauden eltxo banakak jaten ari dira. Sahatsak, milazkak, lezkak, landare halofiloak, haltzak etab. indarrez datoz. Udaberriko pasea bere onenean dago eta belatzak pagausoak zelatuzten ditu Talaimendiko labarretatik.
APIRILA	Txirritxo txikiaren lehen bikoteak ikusten dira. Eztei aurreko migrazioan gaude: limoetako hegaztiak, insektujaleak eta bestelako hegaztiak areagotu egiten dira. Orain da momentua zenbait txori behatzen gozatzeko: buztanzuri arrunta, paparurdina, buztangorri nabarra, pitxartxar nabarra, sasi-txinboa, larre-buztanikarak ... Txilinporta txikiaren lehen txitak ageri dira. Hegaztien kantuekin osatutako korua bere onenean dago, bereziki egunsentian eta ilunabarrean.
MAIATZA	Txirritxo txikiaren lehen txitak. Kurlinta bekaindunen bando ederrak ikus daitezke duna inguruetan (Zarautzen maiatz-kuliskak deitzen zaie). Hondartzan txirri zuria, eta paduran kuliska gorriak, bernagorriak, txirriak, etab. ikusiko ditugu jaten eta atsedean hartzen beren iparraldeko bidaia luzean parada eginda. Ur-insektuak ugari dira eta hegazti insektujaleak indar berritzen ari dira, ugaltzeko sasoiari heltzeko. Iritsi berri dira sasi-txoriak, lezkariak, etab.
EKAINA	Hilaren hasierarako iritsiko dira azken migratzaileak, antzandobi arrunta barne. Lezkak luzatuta daude eta bertara arimatuko dira lezkari arruntak habiak egitera. Biotopoa bete-betean loratu da. Belatzaren txitak habia laga eta ehiza-ikasketekin dabil-tza airean.
UZTAILA	Burruntzi eta sorgin-orratz ugari dabil eguzkiaren indarrez lehortzen ari diren putzuetan. Azken txitaldiak garatzen dira. Sasoi honetan izaten da dibertsitate txikiena. Hilaren bukaera aldera txitaldia bukatuko da, eta Europatik datozen aurreneko hegaztiak azalduko dira; nabarmena izaten da antxeta mokogorri eta burubeltzen agerpena. Gero eta txori abeslari gutxiago sumatzen dira.
ABUZTUA	Eztei-ondoko migrazioa martxan da, lehenik hegazti insektujaleena: lezkari, benarriz eta txinboak. Uroilo eta uroilanda handiaren marrua entzun daiteke lezkadian, beraien txita haziak inguruan dituztela. Zenbait urtetan milaka enara arrunten eta uhalde-enara batzuen lotegi bihurtzen dira lezkadiak.
IRAILA	Udazkeneko migrazioaren gailurra: lertxun, ubarroi, mokoabal, limoetako hegazti, kaio, ahate eta hegazti txiki ugari ikusten da. Txantxangorria kantari ari da negu osoan babestuko duen lurraldea aldarrikatzen. Maiz inurritegiak gainezka egiten dute, ingurua inurri hegodenez betez, eta bidaian dabil-tzan txori txikiek ez dute gizentzeko aukera alferrik galduko. Bestela nekez bistaritzen diren txoriak ere orain ikusiko ditugu.
URRIA	Hegazti udatiar guztiak desagertuko dira, eta pixkanaka negutarrak datoz. Iparraldetik txantxangorria, negu-txirta eta txio ugari ari da hurbiltzen. Kanaleko paduran, gurekin negua igaroko duten lertxunak eta lertxuntxoak kokatu dira dagoeneko. Pagausoek, hegatzabalek, txontek, birigarroek ..., ikuskizun benetan zoragarria eskainiko diote gora begiratzeko denbora hartzen duenari.
AZAROA	Birigarro txikiak, antzarak eta kurriloak entzungo ditugu gauetan. Askotan gau osoan bidaiatu eta gero atsedean leku baten bila ibiltzen dira gure kostaldera iritsitakoan. Neguko itsas ekaitz bortitzen ondorioz, hondartzan itsas hegazti ahulduak edo hilak azaltzen hasiko dira. Labarretan ubarroi handiak lotegietan elkartzten dira, azken urteetan Malla Harrikoa galdu bada ere.
ABENDUA	Neguko elurteetan hainbat ahate eta limoetako hegaztien gordeleku bihurtzen da. Zingira-berdantza eta dilindaria behatzeko garaia da lezkadietan. Buztanluzeak, kaskabeltzak eta bestelako paridoak zaratatsu ibiliko dira nomada gisa inguruak ustiatzen.

9. IÑURRITZAKO 100 HEGAZTI:
aurkibide alfabetikoa,
argazkiak eta
informazioa

MALLA HARRIKO LABARRETA KOAK

TALAIMENDIKO LANDAZABALEKOAK

DUNA ETA HAREATZAKOAK

KANALEKO PADURAKOAK

IXPILLAKO URMAELEKOAK

Ahate mokozebala.....	111	Lertxun gorria	115
Ahate txistularia	86	Lertxun hausgara	114
Amiltxori arrunta	91	Lertxuntxo txikia.....	113
Antxeta burubeltza.....	81	Lezkari arrunta	125
Antxeta mokogorria	105	Lezkari karratxina	126
Antzandobi arrunta	67	Martin arrantzalea.....	106
Araba zozo pikarta	68	Mokozabal zuria.....	92
Argi-oilarra	44	Negu-txirta.....	85
Basahatea	89	Paparurdina	109
Bela beltza	69	Pitxartxar burubeltza.....	51
Belatz handia.....	32	Pitxartxar nabarra.....	50
Belatz gorria.....	39	Sasi-txinboa.....	59
Benarriz arrunta	124	Sasi-txori arrunta.....	56
Benarriz nabarra	55	Tuntun arrunta	48
Bernagorri arrunta.....	104	Txantxangorria.....	49
Birigarro arrunta	54	Txepetxa	47
Buztangorri argia.....	52	Txilinporta txikia	112
Buztangorri iluna.....	37	Txinbo burubeltza.....	58
Buztanikara horia.....	108	Txinbo kaskabeltza.....	60
Buztanikara zuria	83	Txio arrunta eta iberiarra.....	61
Buztanluzea	65	Txio horia.....	127
Buztanzuri arrunta	84	Txirri arrunta.....	99
Dilindaria.....	128	Txirri grisa	96
Enara arrunta	120	Txirri kurlinta.....	98
Enara azpizuria	121	Txirri lodia.....	97
Erregetxo bekainzuria	62	Txirri zuria.....	79
Errekatxindorra	122	Txirriskil arrunta.....	75
Erroia	38	Txirritxo handia	95
Etxe-txolarrea	129	Txirritxo txikia	94
Etze-txinboa.....	57	Txoka arrunta	72
Euli-txori beltza.....	64	Txonta arrunta.....	71
Euli-txori grisa	63	Txorru arrunta.....	74
Gailupa.....	76	Ubarroi handia	90
Gari-berdantza.....	78	Ubarroi motoduna	31
Harkaitz-zozo urdina	36	Uda-txirta	46
Hegabera.....	41	Uhalde-enara.....	119
Hesi-berdantza	77	Ur-benarriza.....	123
Hontz zuria.....	43	Uroilanda handia	116
Ihi-txoria.....	110	Uroiloa	117
Ipar-ahatea	87	Urubi arrunta.....	42
Istingor arrunta.....	100	Usapal turkiarra.....	82
Kaio beltza	35	Zankaluzea.....	93
Kaio hankahoria.....	33	Zapelatz arrunta.....	40
Kaio iluna	34	Zertzeta arrunta.....	88
Karnaba.....	73	Zingira-berdantza.....	130
Kaskabeltz handia	66	Zozo arrunta	53
Kopetazuri arrunta.....	118		
Kuliska gorria.....	101		
Kuliska txikia	102		
Kuliska zuria.....	103		
Kurlinta bekainduna.....	80		
Landa-txolarrea.....	70		
Larre-buztanikara	107		
Lepitzulia.....	45		

UBARROI MOTODUNA (*Phalacrocorax aristotelis*)

Ordena: Pelecaniformes
Familia: Phalacrocoracidae



Gorputz-luzera: 80-100 cm
Hego-luzera: 130-160 cm

Argazkia: Aitor Leiza

Ubarroi motodunak lumaje iluna du eta, izenak berak dioen bezala, ugaltze-garaian buru gainean luma-motots nabaria du. Mokoak dauka indartsua, luzea eta gako-itxura pixka bat duena. Ibaietara ez da sartzen, itsasertzean bizi da eta igerilari eta murgilari aparta da. **lñurritzan** arrunta da, Malla Harri inguruetan. Bere lumak ez dira iragazgaitzak eta horregatik, hainbat aldiz murgilduz gero, hegoak zabaldua egon behar du gero lehertzeko. Ubarroiaren lumak erabat bustitzen direnez, ez dute haizerik pilatzen, eta nahiz eta hezur arinekoak izan, ondo hondoratzen dira uretan, eta hegan egiteko gaitasuna ere kontserbatzen dute. Itsasoan hegan ur-gainetik doazenean ez dute altuera handirik hartzen; *ubarroi handiak*, aldiz, normalean altuago joaten dira.

Arrainak jaten ditu eta inguruetako itsaslabarretan egiten du habia. Bere familia berdinekoa den *ubarroi handia* ez bezala, hau egoiliarra da eta urte osoan ikus daiteke hemen, baina behin ere ez kopuru handietan.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKA	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

BELATZ HANDIA *(Falco peregrinus)*

Ordena: Falconiformes

Familia: Falconidae



Gorputz-luzera: 38-50 cm

Hego-luzera: 83-113 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Belatz handia usoa baino handixeagoa da. Hegan doala hego luze eta zorrotzak erakusten ditu eta isats luze eta estua. Bizkarraldea gris-urdinxka du eta sabelaldea argia eta marraz jantzia. Emea arra baino handiagoa da. Normalean airean egiten du ehiza eta, beraz, hegaztiak jaten ditu batez ere. Askotan esaten da munduko hegaztirik azkarrena dela, eta falkonerian erabiltzen da (gure inguruetan zabortegietatik kaioak, edota aireportuetatik hegaztiak uxatzeko). Bere ehiza-saioak benetan ikusgarriak dira, bereziki udaberrian, ugaltze-garaietan, bikoteak hegaztiak harrapatzen elkartanean aritzen direnean. **Iñurritzako** biotopoen, belatzak erroiaren habia zaharrak erabiltzen ditu ugaltzeko. Urte osoan bertan bizi den arren, oso urria da.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

KAIO HANKAHORIA

(*Larus michahellis*)

Ordena: Charadriiformes
amilia: Laridae



MALLA HARRIKO LABARRETAN

Gorputz-luzera: 56-66 cm
Hego-luzera: 150 cm

Argazkia: Bittor Mutiozabal

Gure artean kaiorik arruntena da eta Malla Harrian ere egin izan du habia. Neguan, berriz, hiru populazio ezberdinetako aleak elkartzen dira: bertakoak, Mediterraneokoak eta iparraldekoak. Lehen urteko gazteek gorputz osoan kolore arrea izaten dute eta heldua egin arteko lau urteetan zehar urtero kolore arre hori gutxitzen joaten zaie, helduen lumajea izan arte. Baliteke, lumaje ezberdintasunak gazteentzat onuragarri izatea janaria lortzeko lehian, haiekiko helduen agresibitatea gutxituz.

Egoiliarraenez, **lñurritzako** biotopoen urte osoan ikusten da eta batzuetan talde handiak ere osatzen dituzte. Orojalea da, eta gizakiaren hurbiltasunari etekina ateratzen espezialista bihurtu da, lehen arrantzako soberakinak ustiatuz eta orain zabortegeiak.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKA	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

KAIO BELTZA (*Larus marinus*)

Ordena: Charadriiformes

Familia: Laridae



MALLA HARRIKO LABARRETAN

Gorputz-luzera: 61-78 cm

Hego-luzera: 145-165 cm

Argazkia: Bittor Mutiozabal

Kaio beltza munduko kairik handiena da. Bere ezaugarriak dira: egitura orokor sendoa, gorpuzkera eta buru zein mokoaren tamaina nabarmenak. Lehen urteko gazteek gorputz osoan kolore arrea izaten dute eta heldua egin arteko lau urteetan zehar urtero kolore arre hori gutxitzen joaten zaie, helduen lumajea nagusitu arte. Orojalea denez, era askotako elikagaiek osatzen dute beraien dieta. Migratzailea da eta **lñurritzan** negu partean ugariago diren arren, udan ere ikusten dira, baina betiere ale bakanak. Itsasbatterreko espeziea izanik, habia egiteko oso gogoko ditu uhartetxo txikiak eta hemen Malla Harrian ere saiatu izan da, baina dakigunez, oraindik ez du habia aurrera ateratzerik lortu. Kolonietako kaio gazteak depredatzen ditu eta haien janaria lapurtu dezake.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Negutarra
Migratzailea

BUZTANGORRI ILUNA

(*Phoenicurus ochruros*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Turdidae



Gorputz-luzera: 14-15 cm

Hego-luzera: 23-26 cm

Argazkia: Aitor Leiza

Arrek eta emeek buztan gorritzat dute, hortik izena. Habiagile arrunta da edozein harkaitzetako inguruneetan, eta itsaslabarrak oso gustukoak ditu. Gizakiari zion beldurra pixkanaka galtzen joan da, eta gaur egun gure herri eta hirietako eraikin eta teilatuek ordezkatzan dituzte harrizko labarrak. Horregatik udaberriko goizaldeetan, bere kantu latz eta errepikatua edozein kaleetan entzun daiteke. Buztanak ikara egiten du pausatzen denean. **Inurritzan** hegazti arrunta da urte osoan. Lurrean bilatutako intsektuak jaten ditu batez ere, baina negu partean fruitu eta haziei ez die uko egiten. Bere jatorrizko habitatean, harri arteko zuloak aukeratzen ditu habia egiteko. Herri barruan, berriz, berdin balio dio argi indarraren kaxa bat, teila azpia, sukalde-kanpaiko hodia edo ondo estalitako edozein apal.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKA	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

ERROIA *(Corvus corax)*

Ordena: Passeriformes

Familia: Corvidae



Gorputz-luzera: 54-67 cm

Hego-luzera: 115-140 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Erroiak, belabeltzak bezala, gorputza erabat beltza izaten du, baina belabeltza baino dezente handiagoa eta bakartiagoa da. Orojalea den arren, oso oportunistak da eta toki eta aukeren arabera fruituak, ornogabeak, narrastiak, ugaztun txikiak zein beste hegaztiak jaten ditu, berak harrapatuak edo hilik aurkituak. Malla Harrian kaioek erroiaren habiaren inguruan habia egin izan dutenean, maiz ikusten dira kaio-arrautzak lapurtuta. **Iñurritzan** urte osoan bizi da eta habia itsaslabarretan egiten du.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

BELATZ GORRIA

(*Falco tinnunculus*)

Ordena: Falconiformes

Familia: Falconidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Gorputz-luzera: 31-37 cm

Hego-luzera: 68-78 cm

Argazkia: Asier Aldalur

Belatz gorria usoaren tamainako hegazti harraparia da eta hego zorrotzak eta isats luzea ditu. Emea arra baino handiagoa izaten da eta bizkaraldean kolore gorrixka izaten dute biek. Hegan ari dela, airean esekita egoten da, harrapakina behatu bitartean, mugitu gabe, zelatari. Talaimendiko itsas-labarretan egiten du habia. Inguruko larreetan ehizan ibiltzen da eta urte osoan zehar ikus daiteke **lñurritza** inguruetan. Ornodun txikiak jaten ditu, batez ere karraskariak, nahiz eta hegazti txiki, sagu, sator eta abarrez ere elikatu izan.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

HEGABERA

(*Vanellus vanellus*)

Ordena: Charadriiformes

Familia: Charadriidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Gorputz-luzera: 28-30 cm

Hego-luzera: 67-72 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Hegabera helduek bizkar nabar berdexka izaten dute eta zuri-beltza den buruaren amaieran gandor ikusgarria; emearena txikiagoa izaten da. Hego biribilduak ikusten zaizkio hegan eta hori da gainerako zangaluzeengandik bereizteko ezaugarri nagusia. **Iñurritzan** espezie hau ugariagoa da eztei ondorengo migrazioan, nahiz eta ale batzuk uztailean edo abuztuan ikusi izan diren. Hala ere, hotz-boladak izaten direnean, ehundaka ale bildu izan da bertan. Hotzaldi horiek negua pasatzen ari diren lurraldeak (e.b. Frantziako Landak) jotzen dituenen, janaria han lortu ezinean mugitu egiten dira baldintza hobetuen bila. Espazio irekiak izaten dituzte gogoko eta batez ere duna gaineko larreetan elkartu izan dira. Elikatzerakoan "korrika-gelditu-jan" sekuentzia egiten dute lurreko zizare, matxinsalto, inurri eta abar jenez.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X					X	X	X	X

Migratzailea

HONTZ ZURIA (*Tyto alba*)

Ordena: Strigiformes

Familia: Tytonidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Gorputz-luzera: 36 cm
Hego-luzera: 80-95 cm

Argazkia: Ricardo Rodriguez

Hontz zuriak, izena berak dion bezala, sabela eta burua zuri zuriak ditu, bizkarraldea berriz kolore arre-argikoa. Aurpegia bihotz itxurakoa du. Hegazti hau urte luzez heriotza ardatz duten kondaira ilun ugariren protagonista izan da. Gautarra den ehinean ez da erraza izaten bera ikustea, baina egunaren lehen argi izpiak irtetean, batzuetan ehizean jarraitzen du eta momentu hori izaten da bera hobekien ikusteko unea. Batik bat ugaztun txikiak ehizatzen dituen arren, hegazti txikiak ere jaten ditu; ehizerako ingurune zabalak onesten ditu. Gizakiak eraikitako eliza, baserri edo bordetan egin ohi du habia, baina batzuetan labarretan ere egin izan du. **Iñurritzan** arrunta da baina beti ere ale bakanak izaten dira. Bere kantuak arnasketa sakon bat dirudi.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

ARGI-OILARRA

(*Upupa epops*)

Ordena: Bucerotiformes

Familia: Upupidae



Argazkia: Koldo Lizundia

Gorputz-luzera: 28 cm

Hego-luzera: 44-48 cm

Argi-oilarrak gorputz arre-gorrixka liraina du, hego biribilduak eta behe-rantz kurbatutako moko luzea. Buruan lumaz eraturako gandor ikusgarri bat ere badu. Migratzailea da eta Talaimendin goi parteko leku lehorretan ikusten da batez ere. Lurrean ornogabeak janez elikatzen da eta horretarako bere moko luze eta kurbatuaz baliatzen da, zulo eta tarte txikitan moko sartuz kilkerrak, beldarrak eta abarrez elikatzeko. Hegaldi labur eta uhinduek ere atentzio handia ematen dute eta bere hegan egiteko erak tximeleta bat gogorazten du, hegoak etengabe ireki eta itxiz egiten duelako. Harrapariak uxatzeko duten estrategietako bat da, habian oso usain txarra edukitzea.

Migratzailea

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
		X	X	X			X	X			

LEPITZULIA

(*Jynx torquilla*)

Ordena: Piciformes

Familia: Picidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Gorputz-luzera: 16 cm,
Hego-luzera: 25-27 cm

Argazkia: Aitor Leiza

Lepitzuliak lumaje arre-grisaxka eta oso kriptikoa duenez, zuhaitz-enbor baten azala dirudi eta ondorioz ez da izaten batere ikusterraza, baina sarritan errepikatzen duen kantak (ki, ki, ki, ki...) nabarmentzen du. Burua guztiz jiratzeko gai da (hortik datorkio bere izena) eta lepoa luzatuz eta jasoz, suge baten mugimenduak imitatzen ditu defentsa moduan. Intsektu oro jaten duen arren, inurriak zein bere larbak ditu gogoko, eta bere mingain luze eta itsaskorrez baliatuaz harrapatzen ditu. Habia zuhaitzen zuloetan egiten du, beste hegaztiekin egindakoak edo naturalak aprobetxatuz, bera ez baita egurra zulatzeko gai. Migratzailea da. **Iñurritzan** nahiko arrunta da eta non-nahi entzun daiteke kantari. Txori gehienentzera pausatzen da adarretan, naiz eta okilen familiakoa izan.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
		X	X	X	X	X	X	X	X		

Migratzailea
Habiagilea

UDA-TXIRTA

(*Anthus trivialis*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Motacillidae



Gorputz-luzera: 15 cm

Hego-luzera: 26 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Uda-txirta bizkarralde arrea eta orban arrez apaindutako sabelalde zuriska duen txori liraina da. Hegalera oso berezia du eta hegan dabilela kantatu egiten du. Migratzailea izanik, martxoan iristen dira lehen aleak. *Uda-txirtak* zuhaitzaren adar-puntatik goraka abiatzen dira trorrotxio potente bat eginenez, gero jaisten hasten dira, hegoak eta isatsa zabalik dituztela, *txio, txio, txio...* eginez, berriro zuhaitz-adarrera itzuli bitartean. Talaimendiko larreetan ugaria da eta gehienbat lurrean ibiltzen da intsektuak janez, nahiz eta zuhaixketan pausatu zalea izan. Lurrean geldi dagoenean, makurtutako itxura hartzen du. Habia egiten du bertan, eta *kukuek* oso gogoko dute hegazti honen habia beren arrautzak jartzeko. *Uda-txirtak* negua Afrikan igarotzen du, Sahara basamortua baino hegoalderago.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
		X	X	X	X	X	X	X	X		

Migratzailea
Habiagilea

TXEPETXA (*Troglodytes troglodytes*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Troglodytidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Gorputz-luzera: 9-10 cm

Hego-luzera: 13-17 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Txepetxa **lñurritzako** bigarren hegaztirik txikiena da. Habia goroldioz zein beste material bigun batzuekin osatzen du, esfera antzeko bat eginez, zulo txiki bat utziz barnera sartzeko. Batzuk poligamoak dira, arrek habia bat baino gehiago egiten dute eta habia bakoitzera eme ezberdin bat erakartzen saiatzen dira. Kantu melodikoa du eta Europako kantarik indartsuena, duen tamaina kontuan hartuz. **lñurritzan**, habitat ezberdinetan ikus daitekeen arren, sasi, sastraka, otadi, lezkadi eta abar ditu gogokenak.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoliarra

TUNTUN ARRUNTA

(*Prunella modularis*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Prunellidae

TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN



Argazkia: Asier Aldalur

Gorputz-luzera: 13-14 cm

Hego-luzera: 19-21 cm

Tuntun arrunta, txolarre emearekin nahas daiteke, baina *tuntunak* lumaje gorriak eta moko finagoa ditu. Batez ere lurlean bilatzen dituen in-sektuz elikatzen da eta, horien faltan, haziz ere bai. **Iñurritzan** urte osoan zehar otadietan ikusten da eta neguan Europa Iparraldetik zein mendi al-tuetatik ale berriak etortzen dira. Habia sasi edo ote tartetan egiten du eta, normalean lau edo bost arrautza erruten baditu ere, batzuetan emea bi arrek estaltzen dutenez, hamahiru arrautza ere jar ditzake emeak.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

TXANTXANGORRIA

(*Erithacus rubecula*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Turdidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Gorputz-luzera: 14-16,5 cm
Hego-luzera: 20-22 cm

Argazkia: Bittor Mutiozabal

Txantxangorria bizkarralde marroia eta laranja koloreko paparra dituen txori txikia da. Gorputz lodikotea du, hankak luzeak, begiak handi eta beltzak eta mokoa fina. Bere begi handi horiei esker gauez ere oso ondo moldatzen da. Askotan hegalak erorita edukitzen ditu. Kantari aparta da eta askotan gauean ere kantari jarduten du. Benetan txori territoriala da, neguan ere bere lurraldea defendatzen du, eta horregatik urte osoan entzun daiteke bere kantu indartsua. Nagusiki ornogabez elikatzen da nahiz eta neguan haziak ere gehitzen dizkion bere dietari. Baso eta landazabalak ditu gogoko, baina leku gizartuetan ere bizi da. **Iñurritzan** ugaltzen den hegaztia da eta garai hori kantatu gabe igarotzen du. Bertan urte osoan ikus daitekeen arren, neguan zein pase-garaietan asko ugaritzen dira .

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKA	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

PITXARTXAR NABARRA

(*Saxicola rubetra*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Turdidae



Argazkia: Aitor Leiza

Gorputz-luzera: 13 cm

Hego-luzera: 21-24 cm

Pitxartxar nabarrak pitxartxar burubeltzaren itxura handia dauka, eta elkar bereizteko ezaugarriak nabarmenena bekainaren kolorea da, lehendabizikoak zuria baitu eta bigarrenak ez. *Pitxartxar burubeltza* egoiliarra denez urte osoa igarotzen du **lñurritzan**, baina *pitxartxar nabarrak* negua Afrikako Sahara azpian igarotzen du. Hori dela eta **lñurritzan** udaberriko zein udazkeneko pase-garaietan da ugariena, baina beti ere ale bakanak izaten dira. Landazabaletako belardiak eta otadiak ditu gustokoenak eta horregatik Talaimendi aldean ikusten dira alerik gehienak. Elikatzeko batez ere ornogabeak jaten ditu eta fruituak ere bai udazkenean. Hegazti honek habia lurrean egiten du ilez, goroldioz eta belarrez osatutako katilu itxurakoa.

Migratzailea

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
		X	X	X			X	X	X		

PITXARTXAR BURUBELTZA

(*Saxicola torquata*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Turdidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Gorputz-luzera: 13 cm

Hego-luzera: 18-21 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Pitxartxar burubeltzak burua zein bizkarraldea beltzak ditu; emeak arraren antzeko koloreak ditu, baina motelagoak. Larre-arteak hesietan, zuhaixken puntetan eta antzeko leku deigarrietan pausatzeko ohitura du. **Iñurritzan** erraz ikusten da, gizakiari beldur gutxi diolako, eremu zabalak gustuko dituelako eta izena ematen dion bere "pii-txar-txar" kantu-deiak salatzen duelako. Pausatuta dagoenean, askotan mugitzen ditu hegoak eta buzta-na. Bertan ugaltzen da eta bitxikeria bezala esan, umeak jaiotzen direnetik habia uzten duten bitartean, alegia, bi astetan, egunero 300 joan-etorritik gora egiten dituztela gurasoek habiara umeei bazka eramateko. Intsektuak, armiamak, arrak eta barraskiloak jaten ditu batez ere, nahiz eta negu partean, elikagai hauek asko gutxitzen direnez, fruitu eta haziak ere jan.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKA	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

BUZTANGORRI ARGIA

(*Phoenicurus phoenicurus*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Turdidae



Gorputz-luzera: 14 cm
Hego-luzera: 22-24cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Buztangorri argia, izena berak dion bezala, isats-gorria duen hegazti txiki bat da. *Buztangorri zuria* eta *buztangorri argia* elkarren artean erraz nahas daitezke, baina lehenengoak bekain zuria du eta bigarrenoak ez. Geldirik dagoenean isatsa gora eta behera mugitzeko ohitura handia du eta hegalera arin eta uhindua du. Negua, Afrikako Saharan azpian pasatzen du eta **lñurritzan** udaberriko zein udazkeneko pase garaian ikusten dira gehienak, baina beti ere ale bakanak izaten dira. Ugaltzeko garaian baso zaharrak hautatzen ditu eta habia zuhaitzetako zuloetan egiten du. LARBAK, intsektuak edo armiarmak jaten ditu, baina eztei ondoko bidaia hasi aurretik fruitu asko ere bai. Kalte egiten die, baso zaharren desagarketek, baso exotikoen landaketek eta plagizidek.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
		X	X	X			X	X	X		

Migratzailea

ZOZO ARRUNTA

(*Turdus merula*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Turdidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Gorputz-luzera: 24-25 cm

Hego-luzera: 34-39 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Zozo arra beltza da eta emea, aldiz, marroia. Zizareak, bestelako ornoga-beak eta fruituak jaten ditu eta **lñurritzan** zuhaitzak, sastrakak, soroak eta larreak tartekatuta dauden lekuak atsegin ditu gehien. **lñurritzako** hegaztirik arruntenetakoa denez, non-nahi ikusten da bertan. Korrika belar gainean oso trebea da eta askotan gelditu, begiratu, eta jarraitzen du ehizan. Kantari bikaina izanik zuhaixken puntetan eta antzeko toki deigarrietan kantari jarduteko ohitura handia du. Oso urbano bihurtu da eta lorategietan arrunta da.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKA	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoliarra

BIRIGARRO ARRUNTA

(*Turdus philomelos*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Turdidae



Gorputz-luzera: 20-22 cm

Hego-luzera: 33-36 cm

Argazkia: Aitor Leiza

Birigarro arruntak bizkarralde marroixka du eta orban marroiez apainduta-ko bular eta sabelalde zuriak ditu. **Iñurritzan**, zuhaitzak dauden inguruak eta larreak tartekatzen ditu eta bertan lurrean aurkitzen dituen zizare, oskoldun, molusku eta intsektuak jaten ditu. Oskoldunen artean barraskiloak ditu gustukoak, eta gorputza oskoletik ateratzeko, harri baten kontra kolpatuaz txikitzen ditu. Neguan fruituak ere jaten ditu. **Iñurritzan**, umatzeaz gain, oso arrunta da, baina basotxo edo zuhaitzik ez dagoen lekuetan ez da ageri. Kantari bikaina izanik, zuhaixken puntetan eta antzeko toki deigarrietan kantari jarduteko ohitura handia du. Kantua berezia eta polita du, estrofa bakoitza bi edo hiru aldiz errepikatuz. Neguan fruituak ere jaten ditu eta hazi-banatzaile naturala da zeren eta, fruituak jan ondoren, kaka egitean han-hemenka zabaltzen baititu haziak. Belar gainean korrika oso trebea da eta askotan gelditu-begiratu-jarraitu sekuentziarekin egiten du ehizan.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

BENARRIZ NABARRA

(*Locustella naevia*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Sylviidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Gorputz-luzera: 13 cm
Hego-luzera: 15-19 cm

Argazkia: Bittor Mutiozabal

Benarriz nabarra txori txiki eta izua da. Bizkarraldea arre-nabarra du, sabelaldea zuriska eta hankak arrosak. Migratzailea da eta udaberrian **lñurritzara** etortzen da ugaltzera, habia lurrean edo lurretik gertu eginez. Ez da batere ikusterraza, baina bere kantu berezia entzutean non dabilen arrastoa hartzen zaio, **lñurritza** biotopoko otadiak ditu gustuko eta bertan kantari ibiltzen da, taladro bat balitz bezala, “trrrrrrr” oso luzeak eginez, baita gauz ere. Txitxarraren kantua du. Burua okertzen duenean ozenago edo gutxiago entzuten da. Intsektuak eta orngabe txikiak jaten ditu.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKA	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
		X	X	X	X	X					

Migratzailea
Habiagilea

SASI-TXORI ARRUNTA

(*Hippolais polyglotta*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Sylviidae



Gorputz-luzera: 13-14 cm

Hego-luzera: 20-24 cm

Argazkia: Bittor Mutiozabal

Sasi-txori arrunta, izen berak dioen bezala, sasi zein sastraka tartetan oso ondo moldatzen den hegaztia da, nahiz eta, batik bat, zuhaixka handi zein txikiak dauden landazabalak izan gogoko. Bere lumaje arre-berdexkarekin ez da batere erraza izaten genero berdineko beste hegaztietatik bereiztea. Etengabe kantatzen du, askotan inguruko beste txorien kantak kopiatzen dituelarik (hortik bere izena, *polyglotta*). Txio handi baten itxura du. **Iñurritzan** habia egiten du eta udaberritik hasi eta udazkenera bitartean oso hedatua dagoen hegaztia da. Intsektu eta ornogabe txikiak jaten dituen arren, udazkenean, migrazio luzeari aurre egiteko, fruituak ere jan ditzake, gantz-kopurua handitze aldera.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
			X	X	X	X	X	X			

Migratzailea
Habiagilea

ETZE-TXINBOA

(*Sylvia undata*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Sylviidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Gorputz-luzera: 12-13 cm

Hego-luzera: 13-19 cm

Argazkia: Koldo Lizundia

Etze-txinboa, genero honetako hegaztirik txikienetakoa da, gorputz lodikotea eta isatsa oso luzea dituen hegazti ikusgarria. Eguzki aldera ematen duten otadiak ditu gustukoen eta **lñurritzan**, habia egiteaz gain, itsaslaba-rretako zein barneko otadietan urte osoan bizi da. Mediterraneoko isurialdeko hegazti bat izan arren, Kantauri isurialdean kostaldetik gertu ere bizi da. Sastraka zein otadietan barna, altuera oso baxuan hegaldi laburrak eginez ibiltzen da batetik bestera. Askotan sastraka-puntako atsedean lekuren batzuetan kantari hasten da eta "tchieer-tchieer" moduko kantu lehor eta garratza egiten du. Batez ere ornogabe edo intsektuz elikatzen bada ere, negu partean haziak ere jan ditzake.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

TXINBO BURUBELTZA

(*Sylvia melanocephala*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Sylviidae



Gorputz-luzera: 13-14 cm
Hego-luzera: 15-18 cm

Argazkia: Asier Aldalur

Txinbo burubeltzak, izenak dioen bezala, burua erabat beltza dauka, lepalde zuria eta begiak gorri deigarriak. Orain dela oso urte gutxi iritxi da **lñurritzara** eta habia Talaimendi magaleko zuhaitz txiki eta hostoiraunkorretan egiten du. Sastraka artean ezkutatuta bizi denez, ikustea baino errazagoa da bere kantu nahasia entzutea, edo urduri dagoenean “metrailadore” moduko bere dei-kanta: ta,ta,ta,tata... Orain arte Mediterraneo isurialdean bakarrik bizi zen arren, Ebro Ibarra jarraituaz Kantauri isurialderaino iritsi da, Bizkaira, eta gero kostatik Gipuzkoara; aldaketa klimatikoagatik dela diote. Nagusiki zomorroz elikatzen bada ere, egoiliarra izanik, neguan, insektuak asko gutxitzen direnean, fruituak ere jaten ditu.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

SASI-TXINBOA

(*Sylvia communis*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Sylviidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Gorputz-luzera: 14 cm
Hego-luzera: 18-23 cm

Argazkia: Koldo Lizundia

Sasi-txinboak tamaina ertaina du, bizkarraldea arre-gorrixka eta isats-ertzak zuriak, zeinak diren genero bereko beste hegaztietatik bereizteko garaian garrantzizko ezaugarriak. Txinbo honek ere inguru hezeak ditu gogoko, baina padura baino gehiago larrezabalak, sastrakak zein baso txikiak tartekatzen diren guneak. Horregatik **lñurritzan** Talaimendi aldean ikustea da ohikoena. Habia lurretik oso gertu egiten du eta kableetan pausatzeko ohitura du, beste txinboek ez bezala. Afrikan, Saharatik behera, negua igarotzen duen migratzaile handia da eta **lñurritzan** batez ere pase-garaian ikusten da. Intsektuz elikatzen bada ere, eztei ondoko migrazio gogorra hasi aurretik, gantz kopurua handitzeko fruituak ere jaten ditu.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
			X	X	X	X	X	X	X		

Migratzailea

TXINBO KASKABELTZA

(*Sylvia atricapilla*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Sylviidae

TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN



Gorputz-luzera: 14 cm
Hego-luzera: 20-23 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Txinbo kaskabeltza arrek, izenak berak dioen bezala, arrek buruan kasko beltza dute, baina emeek zein gazteek marroi-gorrixka. Oso kantu melodikoa du eta **lñurritzan** edozein lekutan entzun daiteke kantari, nahiz eta, beste txinbo gehienak bezala, ez den erraz ikusten den horietakoa. **lñurritza** bezalako inguru hezeak oso gustukoak ditu eta sastraka, otadi, zuhaixka eta abar dauden inguruetan erabat hedatuta dago. **lñurritzan** habia egiteaz gain, urte osoan bertan bizi den hegaztia da, baina neguan hemengo hegaztiaz gain, negutarrak ere etortzen dira. Intsektuak eta fruituak jaten ditu eta habia batez ere hosto iraunkorretako landaredian egiten du. “Txinbo” markako xaboiari hegazti honek eman zion izena.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

TXIO ARRUNTA eta IBERIARRA

(*Phylloscopus collybita*)

(Zarautzen *Moitua*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Sylviidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Gorputz-luzera: 10-11 cm

Hego-luzera: 15-21 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Txio iberiarra *txio arruntaren* subespeziea zela uste izan da duela gutxi arte, baina orain bi espezie desberdin kontsideratzen dira. Dirudenez, Pirinioetako zona batean bi espezieak hibridatzen dira baina ondorenak antzuak dira. Morfologikoki oso zailak dira biak bereizten; zerbait esateko, *txio iberiarra* zertxobait kolore biziagokoa da. Kantua dute desberdina. *Txio arruntak* "zib-zab-zib-zab..." luze eta mantsoa egiten du. *Txio iberiarrak* berriz, "zib-zab..." bizkorragoa du eta "txi-txi-txi-txi" bizkor batekin bukatzen du. Bietako batek, *txio arruntak*, negua **lñurritzan** pasatzen du, Europatik behe-raka etorri, eta besteak, *txio iberiarrak*, uda pasatzen du hemen, Afrikatik goraka etorrita. *Txio arruntak* ez da **lñurritzan** ugaltzen, baina bai *txio iberiarra*. Zarautzen "*moitua*" (*mugitua*) izenarekin ezagutzen dira biak, agian, zuhaitzetan, adarrez adar, geldirik egon gabe ibiltzen direlako. Elikatzeko garaian beren moko txikiarekin, batik bat intsektuak harrapatzen badituzte ere, neguan fruituak ere jaten dituzte eta udaberrian polena eta nektarra ere bai. Udaberriko pasean, Marokotik datozten *txio iberiarrak* askok, mokoetan pegaturik, palmondoetako nektar-arrastoak ekartzen dituzte.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X						X	X	X	X

Txio arrunta: Migratzailea

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
		X	X	X	X	X	X	X			

Txio iberiarra: Migratzailea
Habiagilea

ERREGETXO BEKAINZURIA

(*Regulus ignicapillus*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Sylviidae



Gorputz-luzera: 9 cm
Hego-luzera: 13-16 cm

Argazkia: Bittor Mutiozabal

Erregetxo bekainzuria Europako hegaztirik txikiena dela esaten da. Izenak berak dioen bezala, bekainean marra zuri bat du eta honek bereizten du genero bereko *meni-erregetxotik*. Koniferoz osatutako basoak ditu gogoken, baina hostotza trinkoa duten zuhaitzak (arteak,) eta inguru hezeak ere bai, horregatik da **lñurritzan** hain ugaria. Urte osoan ikusten bada ere, negu partean da ugariena. **lñurritzan** Talaimenditik jaisten den errekaetan ugari ikusten dira negu partean. Bertan sortzen diren intsektuak janez elikatzen da. Adarrez adar gelditu gabe ibiltzen da jan bila.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

EULI-TXORI GRISA

(*Muscicapa striata*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Muscicapidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Gorputz-luzera: 14-15 cm

Hego-luzera: 23-25 cm

Argazkia: Bittor Mutiozabal

Euli-txori grisak, izenak berak dioen bezala, gorputzaren gehiena grisa du. Ingurune irekiak zein baso-ertzak ditu gogokoak, baina azken aldian ingurune gizartuetara ere ongi moldatu da. **lñurritzan** ugaltzen den hegaztia dugu hau eta, beste migratzaile asko bezala, udaberri eta udazkeneko pase-garaietan izaten da ugariena, baina betiere ale bakanak, ez da taldeetan ibili zalea. Larre-arteke hesietan, zuhaixken puntetan eta antzeko leku deigarrietan pausatzeko ohitura du eta bertatik hegan irtenda harrapatzen dituen intsektuak jaten ditu; fruituak ere jaten ditu. *Euli-txori beltzaren* ehiatzeko era bera du: intsektua ikusi ondoren, harrapatzera irten, harrapatu eta bueltan lehengo leku berera itzultzen da.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKA	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
			X	X	X	X	X	X	X		

Migratzailea
Habiagilea

EULI-TXORI BELTZA *(Ficedula hypoleuca)*

Ordena: Passeriformes

Familia: Muscicapidae

TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN



Gorputz-luzera: 13-14 cm

Hego-luzera: 22-24 cm

Argazkia: Aitor Leiza

Euli-txori beltzetan, udal-sasoitik kanpo, arraren zein emearen lumajea berdintsua izaten bada ere, ugaltze-garaian emearena grisa izaten da eta arrarena beltza. **lñurritzan** habiarik egiten ez duen arren, pase-garaietan oso ugaria da eta edozein habitatetan aurki daiteke. Oso "troglodita" da, alegia, habia egiteko zuloak behar izaten dituena, eta horregatik gizakiak ipinitako habia-kaxak oso atsegin izaten ditu. Negua, Afrikan, Saharatik behera igarotzen du. Euli-txori beltzaren ehizatzeko era berezia da: intsektua ikusi ondoren, harrapatzera irten, harrapatu eta bueltan lehengo leku berera itzultzen da; hain da hegalaria abila, hegan itzuleran pausalekura datorrela, hosto gainetan pausatuta ikusten dituen intsektuak ere harrapatzen dituela.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
		X	X	X			X	X	X		

Migratzailea

BUZTANLUZEA

(*Aegithalos caudatus*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Aegithalidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Gorputz-luzera: 12-14 cm

Hego-luzera: 16-19 cm

Argazkia: Koldo Lizundia

Buztanluzeak, izenak berak dioen bezala, bere gorputz lodikotearekin alderatuz oso isats luzea du. **lñurritzan** neguan ikusten dira ale gehienak eta hotzaldi handiak direnean kopurua ugaritu egiten da, baina betiere taldeetan, ez dira bakarrik ibili zaleak. Zuhaitzez zuhaitz, kantu nahiko zaratatsua eginez gelditu ere egin gabe ibiltzen dira. Hostozabalen basoak oso gustuko ditu, baina bestelako zuhaitzak dauden lekuetan ere bizi da. Intsektuak jaten ditu nagusiki eta horregatik erreka inguruetakoz zuhaitzetan ikustea da ohikoa, bertan eklosionatzen diren intsektuak janez. Habia egiten hiru bat aste pasa ditzake; zuhaitzetan zein sastraketan egiten du habia, eta izaten da ikusgarria goroldio, armiarma-sare eta animalien ileekin osatua. Gainera estalia izaten da hauen habia, bola baten itxurakoa, barrualdea lumaz betea eta kanpoaldea erabat kamuflatzen duten likenez estalia.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKA	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

ANTZANDOBI ARRUNTA

(*Lanius collurio*)

(Zarautzen *Zaldubia*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Laniidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Gorputz-luzera: 17 cm
Hego-luzera: 24-27 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Antzandobi arrunt arrak buru grisa du eta begiak estaltzen dizkion mozo-
rro beltza; emea, aldiz, arrea da. Intsektu handiak eta ornodun txikiak ja-
ten ditu eta sarritan arantzetan metatzen ditu harrapakinak. Orokorrean,
despentsa hauek epe motzekoak izaten dira, eguerdiko beroekin harrapa-
tutako intsektuak, afari edo gosari bihurtzen dira. Talaimendi aldean sas-
trakak eta larreak dauden landazabalean bizi da. Migratzailea da, eta gure
artera ugaltzera iristen den azkenekoa izaten da, askotan ekainak aurrera
eginda gero. Bere kanta propioa, eder horietakoa ez bada ere, esan beha-
rra dago antzandobia gai dela beste txorien kantak imitatzeko. *Antzandobi
arruntak* Afrikako hegoaldean pasatzen du negua. Migrazio-garaian Afrika-
rako joan-etorria ez du Iberiar Penintsulatik barna egiten, baizik eta Europa
ekialderaino joaten da Egipto-tik barna Afrikara iristeko.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
				X	X	X	X	X			

Migratzailea
Habiagilea

ARABA ZOZO PIKARTA

(*Sturnus vulgaris*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Sturnidae



Argazkia: Aitor Leiza

Gorputz-luzera: 21-22 cm

Hego-luzera: 37-42 cm

Araba zozoak ugaltzearen garaian moko horia eta lumaje beltz pikarta izaten du, baina neguan lumajea ez du horren distiratsua izaten eta moko beltza izaten du. Ugaltzeko garaian batez ere ornogabeek elikatzen badira ere, negu partean fruituz elikatzen dira eta horregatik **lñurritza** inguratzen duten mahastietan zein Talaimendiko larreetan, ehundaka alez osatutako talde handiak igarotzen dute negua, baina ale gutxi batzuek besterik ez dute habia egiten bertan. Zerua orrazten arituko balira bezala, talde handiz osatutako hegaldi sinkronizatu ikusgarriak egiten dituzte. Hegazti hau gizakiak eragin dituen aldaketetara ongi moldatu da eta gaua pasatzeko lotegi handiak eratzen dituzte herri zein hiri barneko parkeetan, non milaka hegazti elkartzen diren leku horietan. *Araba zozoen* harraparien aurkako estrategietako bat inurritegietara hurbildu eta gorputza azido formikoz estaltzea da, horrela harraparietatik zapora txarra hartuz. Elikatzen ari direnean, taldeko aleren bat zelatan egoten da eta, arriskurik sumatuz gero, abisua eman eta denak batera irteten dira hegan.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

BELABELTZA

(*Corvus corone*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Corvidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Gorputz-luzera: 45 cm
Hego-luzera: 84-100cm

Argazkia: Asier Aldalur

Belabeltza, bere familiako *erroia* bezala, erabat kolore beltzekoa da. Baina azken honek ez bezala *belabeltzak* isatsaren amaiera zuzena du, ez du biribildua. Mokoia zein gorputza ere erroiak baino txikiagoak ditu. *Belabeltza* talde txikitara ibiltzen da, erroia, berriz, beti bakarrik edo bikotearekin. Orojalea den neurrian, oso oportunistak da eta ia denetarik jaten du. Nekazarien artean, uzta lapurtu edo jan egiten dien aitzakian, betidanik oso jazarria izan da, baina era berean ahaztu egiten dira landa-eremuetan sortzen diren izurriteak neutralizatzeko egiten duten onurarekin. Baso txikiak eta larreak tartekatzen diren inguruak ditu gogokoen eta **lñurritzan** Talaimendiko larreetan ibiltzen dira gehienak.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

LANDA-TXOLARREA

(*Passer montanus*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Ploceidae

TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN



Argazkia: Bittor Mutiozabal

Gorputz-luzera: 14 cm

Hego-luzera: 20-22cm

Landa-txolarreak, arrak zein emeak etxe-txolarreen itxura handia dute baina burua haiek baino askoz arre-gorrixkagoa dute. Txolarrearen generoko lirainena ere bada. **Iñurritzako** paduran dauden landare- mota batzuk negu aldean haziz beterik egoten direnez, eta *landa-txolarreak* batez ere haziz elikatzen direnez, ederki aprobeztatzen dute egoera hori. Paduran elikatzen ari direnean, beste generoetakoekin talde handiak osatzen dituzte. Etxe-txolarrek baino leku basatiagoak atsegin ditu eta ez da hiri handietan bizi. Azken aldian giza jardunak nekazaritzan eragin dituen aldaketen ondorioz, edo bizi irauteko behar dituzten lurraldeetan bizi diren beste hegazti-espeziaren konpetentziaren ondorioz, beherakada handia izan du espezie honek gure inguruan. Habia, zuhaitz-zuloetan egitea gustatzen zaio.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

TXONTA ARRUNTA

(*Fringilla coelebs*)

(Zarautzen *Pintzana*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Fringillidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Argazkia: Andoni Ruiz

Gorputz-luzera: 15 cm

Hego-luzera: 24,5-28,5 cm

Txonta arrunta etxe-txolarrearen tamainako hegatzia da. Orojalea denez, denetik jaten du. Nahiko gregarioa da. Europako hegatzirik ugarienetakoa da eta mota guztietako basoetan bizi da eta edozein habitatetara ondo moldatzen da. Migrazio-garaian, talde handietan bidaiatzea gustatzen zaio, batzuetan ehundaka aleko taldeak osatuz. **Iñurritzan** neguan oso ugaria da eta padura inguruan, beste hegaztiekin batera, maiz ikusten da haziak jaten, nahiz eta fruituak, landare-kimuak eta ornogabe txikiak ere jaten dituen. Oso kantu indartsua duen hegatzia da, erreklamorako "txip" antzeko soinu bat ateratzen du eta arraren kantua berriz oso deigarria da "tuit-tuit-tuit-tuit" moduko batekin hasten dena "txot-txot-txot" moduko batekin bukatzeko.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKA	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Migratzailea
Habiagilea

TXOKA ARRUNTA

(*Acanthis cannabina*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Fringillidae



Argazkia: Aitor Leiza

Gorputz-luzera: 13 cm

Hego-luzera: 21-25 cm

Txoka arrunta hegazti txiki eta gregariora da, eta horregatik talde handietan ibili zalea da. Negu partean, bere kolore iluna medio, ez da erraza izaten beste hegaztietatik bereizten, baina bere "txok-txie" kantu deigarriarengatik erraz bereizten da, izena ere hortik dator. Udan, berriz, arrari paparralde eta kopeta guztia gorri kolorekoa jartzen zaio eta, ondorioz, askoz errazagoa izaten da beste hegaztietatik bereiztea. Negu partean leku zabal eta irekietan beste fringilidoekin batera haziak janez ibiltzen dira. **lñurritzan** udaberrian bikote askok egiten du habia, gehienbat itsaslabarretan dauden otadietan. Arrek askotan eme bat baino gehiago estaltzen dute eta habiak egiteko orduan asko laguntzen dute elkar.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

KARNABA

(*Carduelis carduelis*)

(Zarautzen
Kardantxu^loa)

Ordena: Passeriformes
Familia: Fringillidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Gorputz-luzera: 12 cm
Hego-luzera: 21-25,5 cm

Argazkia: Bittor Mutiozabal

Karnabak sabelaldea eta ipurtxuntxurra zurixkak ditu, hegoak hori-beltzak, burua zuri-beltza eta aurpegia gorria. Larreak eta zuhaixkak tartekatuta dauden lekuak oso gustuko ditu. Talaimendi inguruan egiten du habia eta **lñurritzan** urte osoan zehar ikus daitekeen txoria da, nahiz eta pase-garrietan kopuru handiagoetan ikusi. Haziak jaten ditu eta bere moko luzeari esker, arantzaz jositako kardoak ere ustiatzeko gai da. *Tarinekin* batera haltzadietan ere elikatzen da. Habia zuhaixka altu samarretan egiten du. Kantari aparta da eta horregatik karioletarako erreklamo harrapatzen zen; gaur egun ehiza-mota hau erabat debekatuta dago.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

TXIRRISKIL ARRUNTA

(*Serinus serinus*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Fringillidae



TALAIMENDIKO LANDAZABALEAN

Argazkia: Andoni Ruiz

Gorputz-luzera: 11 cm

Hego-luzera: 20-23 cm

Txirriskil arrunta fringilidoen artean txikiena da. Ipurtxuntzur horia du eta mokoak laburra eta sendoa. Arrak, emeak baino zertxobait kolore biziagoak izaten ditu. Basoa eta zuhaitz bakan batzuk dauden edozein lekutan bizi da eta **lñurritzan** ere ugaria da. Neguan beste fringilidoekin taldean, haiekin nahasian ibiltzen da. Orain dela urte gutxi arte Mediterraneo isurialdeko hegazia izan den arren, pixkanaka-pixkanaka Europa iparralderantz hedatzen joan da. Eztei aurrean oso kantari egoten da eta espezie bereko arrekin liskar dezente izaten ditu; era berean, bikotea bilatu nahian, indartsu kantatzearekin batera tximeleta edo saguzarren antza duen hegalaria berezi bat ere egiten du. Habia zuhaitzetan egiten du.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

GAILUPA

(*Pyrrhula pyrrhula*)

(Zarautzen
Txonta)

Ordena: Passeriformes
Familia: Fringillidae



Argazkia: Aitor Leiza

Gorputz-luzera: 15 cm.

Hego-luzera: 22-29 cm

Gailupa arrak sabel gorrixka du eta emeak, berriz, arraren kolore banaketa berdina duen arren, kolore gris eta arreagoak ditu. Oso hegazti ikusgarria denez, bere generoko beste hegaztietatik bereiztea oso erraza suertatzen da. Nahiz eta orojalea izan, bere elikagai nagusienak haziak dira eta horretarako bere moko sendoaz baliatzen da. Basoan bizitzea gustatzen zaion arren, **lñurritz**an ikustea arrunta da, batez ere negu partean eta hotzaldiak direnean. Bere kantua nahiko melankolikoa da, "buiiii" moduko soinu bat ateratzen du eta ezaugarri hori ere oso berea du. Errute-garaian arrak elikatzen du emea.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

HESI-BERDANTZA

(*Emberiza cirius*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Emberizidae



Gorputz-luzera: 16 cm
Hego-luzera: 22-25,5 cm

Argazkia: Koldo Lizundia

Hesi-berdantza eta *berdantza horia* lumajetik bereiztea oso zaila da, batez ere emeak edo gazteetan, baina bada ezaugarri txiki bat bi espezieak bereizteko ona, ipurtxuntxurreko kolorean dago gakoa, gris-berdexka du *hesi-berdantzak* eta marroixka, berriz, *berdantza horiak*. Arrak errazago bereizten dira. Habitat ezberdinetan nahiko hedatua dagoen arren, basoak, larreak zein sastrakak tartekatzen diren inguruak ditu gogoko eta inguru hezea bada oraindik gehiago. Egoiliarra denez, **lñurritzan** urte osoan ikusten dira eta neguan talde handiak ere osatu izan dituzte padura inguruetan. Hegazti nahiko lurtarra denez, erraza da ikustea hazi bila dabilela, saltoka eta hegaldi txikiak eginez. Habia egiteko Talaimendiko otadiak ere gustoko ditu. Habiatic irten eta hurrengo bi asteetan arrak elikatzen ditu txitak, emeak bigarren errunaldia egin bitartean.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

GARI-BERDANTZA

(*Emberiza calandra*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Emberizidae



Gorputz-luzera: 17-18 cm

Hego-luzera: 26-30 cm

Argazkia: Ricardo Rodriguez

Gari-berdantzak lumaje arre-nabar eta kriptikoa du. Habia lurrean egiten du, belar artean ezkutatuta eta haziak, fruituak eta intsektuak jaten ditu. Hazijale amorratua delako nahiko lurtarra da, nahiz eta larre-arteko hesietan zein zuhaixka txikitako leku deigarrietan kantari ikusi askotan. Kolorrez nabarmentzen ez bada ere, bere kanta monotonoa ahaztezina da. Talaimendi inguruko leku irekiak ditu gogoko. Badirudi, Kantauri isurialdean ugaltzen diren *gari-berdantzak* migratzaile partzialak direla, eta urtearen arabera ugariagoak edo bakanagoak izaten dira. Mugitzen denean zalan-tzan bezala egon ohi da non pausatuko eta saiakera batzuk egiten ditu pausatatu aurretik.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
		X	X	X	X	X	X	X	X		

Migratzailea
Habiagilea

TXIRRI ZURIA *(Calidris alba)*

Ordena: Charadriiformes

Familia: Scolopacidae



DUNA ETA HAREATZAN

Gorputz-luzera: 20-21 cm

Hego-luzera: 40-45 cm

Argazkia: Bittor Mutiozabal

Txirri zuriak udan bularralde eta burualdea gorrixkak izaten ditu eta negu aldean, aldiz, ia zuria dirudien gris argia. Gazteek, berriz, tonu zuri eta beltzekin, itxura ezkatatsukoa dute bizkarraldea. Moko luze eta sendoa du eta hego zorrotzekoa da. Atentzioa ematen du bere etengabeko ibilerak. **Iñurritzan**, hondartzan uraren ertzean olatuen joan-etorriaren arabera ibiltzen da, ingurune horretan aurkitzen dituen ornogabe txikiak janez. Talde txikiak osatzen dituzte eta **Iñurritzan** pase-garaian ikusten da gehienbat. *Txirri zuriak* kostaldeko lerroak jarraituz migratzen du eta ugaltzeko lurraldeak Ipar-politik gertu ditu, gehienak Amerikako kontinente aldera.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
			X	X			X	X	X		

Migratzailea

KURLINTA BEKAINDUNA

(*Numenius phaeopus*)

(Zarautzen *Maiatz-kuliska*)

Ordena: Charadriiformes

Familia: Scolopacidae

DUNA ETA HAREATZAN



Gorputz-luzera: 40-42 cm

Hego-luzera: 76-89 cm

Argazkia: Koldo Lizundia

Kurlinta bekainduna tamaina handiko zangaluzea da. Gorputz osoan kolore arrea du eta, izenak dioen bezala, aurpegian bi marra ilun ditu, bata begiaren mailan eta bestea pileoan. Mokoia oso luzea eta behera nabarmen okertua du eta hegan doalarik ipurtxuntxur zurixka ikusten zaio. Hau korrika egin gabe hasten da hegan, *kurlinta handiak*, aldiz, korrika egin behar du hegatu aurretik. Txirularen soinuaren antzeko kantu errepikakor bat egiten du, *kurlinta handiak*, aldiz, "kurli-kurli" (hortik *kurlinta* izena). Migratzailea da eta **lñurritz**an, urte batzuetan, duna eta hondartza inguruetan multzo handiak sortzen ditu. Dunekin erlazio zuzena du, honengatik, Zumaian eta Zarautzen *kurlinta handia* baino arruntagoa da. **lñurritz**ara ale gehienak maiatz hasieran iristen dira, horregatik Zarauzko "*maiatz-kuliska*" izena. Malla Harri inguruko itsasbazterrak eta Talaimendi goialdeko larreak ere gogoko ditu. Lurrean bilatzen dituen intsektu, beldar, ospoldun, krustazeo, arrain txiki eta abarrez elikatzen da. Penintsulan gutxi ikarotzen dutenez negua, hemendik pasatzen direnak Afrikako mendebaldeko kostaraino joaten dira. Ugaldu, berriz, Eskandinabian edo Islandian.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
			X	X			X	X			

Migratzailea

ANTXETA BURUBELTZA

(*Larus melanocephalus*)

Ordena: Charadriiformes

Familia: Laridae



DUNA ETA HAREATZAN

Gorputz-luzera: 36-40 cm

Hego-luzera: 92-100 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Antxeta burubeltza tamaina ertaineko antxeta da, *antxeta mokogorria* baino zertxobait handiagoa. Izenak berak dioen bezala, helduei udan burua erabat beltza jartzen zaie eta neguan aldiz zuria; begiaren atzean orban beltzak izaten ditu eta gainerantzeko gorputz guztia zuri kolorekoa. Heldua izan bitarteko bi urteetan zehar hegoak grisaxkak eta marroiak izaten dituzte. Uztaila ondoren ale batzuk negu osoa pasatzera etortzen dira Zarauzko hondartzara. Padura barrualdera sartu baino nahiago izaten dute itsasertza. Uda partean ale dezente elkartzen dira turistek hondartzan uzten dituzten hondakinen bila eta neguan, berriz, eguraldi txarra bada, multzo handiak osatzen dituzte marearteko lehen lerroan, **lñurritza** aurreko hondartzan. Uretan egoteko hauen eremurik gustukoena ur geza eta gazia nahasten den unea da.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X				X	X	X	X	X	X

Migratzailea

BUZTANIKARA ZURIA

(*Motacilla alba*)

(Zarautzen *Buztainka*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Motacillidae



DUNA ETA HAREATZAN

Gorputz-luzera: 18 cm

Hego-luzera: 28 cm

Argazkia: Aitor Leiza

Buztanikara zuriak, gainerako buztanikarek bezala, gorputz liraina, isats luzea, nahiko moko luzea eta hanka luzeak ditu, baina lumajea txuri-beltza. Oinez ibiltzean buztana asko mugitzeko ohitura du eta hegaleria uhinkara. Garai batean ibaietara eta leku hezeetara orain baino lotuagoa egon zen arren, oraindik ere oso arrunta da **lñurritza** bezalako habitatan ikustea. **lñurritzan** urte osoan zehar ikus daitekeen arren, udazken aldera kopurua asko ugartzen da. Espazio irekietan ibili zalea da eta intsektuz elikatzen da, askotan hegan dabilela harrapatuz. Udaberritik kanpo, lotarako elkartzen dira, askotan ehundaka aleko lotegiak osatuz. Horretarako, lezkak, kanaberak eta herri barruko zuhaitzak ditu gustuko.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKA	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

BUZTANZURI ARRUNTA

(*Oenanthe oenanthe*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Turdidae

DUNA ETA HAREATZAN



Gorputz-luzera: 14-16 cm

Hego-luzera: 26-32 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Buztanzuri arruntaren ezaugarriak nabariena hegan egitean erakusten duen ipurtxuntzur zuria da. Bizkarraldea eta burua grisak ditu eta arrak eztei-garaian begien gainean orban beltza. Oso hegazti lurterra da eta eremu lehor, harritsu eta zabalak gustatzen zaizkio, ondorioz, **lñurritzako** dunan oso arrunta da pase-garaietan. Euskal Herriko mendi gainetan egiten du habia. Zenbait momentutan arrunta izanik, txori bakartia dugu hau, adoretsua eta ausarta, borrokazalea, beti tontor batetik bestera dabilena, tente eta adi, zomorroren bat noiz agertuko zain. Negua Afrika tropikalean pasatzen du, eta udaberrian Eurasia osoan ugaltzen da espezie hau; Hori nahikoa ez eta, Iparreko bidea jarraituz Amerikako lurraldeak ere ari da konkistatzen ditu, eta dagoeneko Groenlandia eta Kanadan ere ugaltzen da. Hegoamerikan izango dira lurralde aproposak espezie honek negua igarotzeko, baina harako bidea ez dute ezagutzen eta, hortaz, berriro Afrikara bueltatzen dira Eurasiako bidetik.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
		X	X	X		X	X	X	X		

Migratzailea

NEGU-TXIRTA

(*Anthus pratensis*)

(Zarautzen *Siotea*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Motacillidae



DUNA ETA HAREATZAN

Gorputz-luzera: 15 cm

Hego-luzera: 24 cm

Argazkia: Koldo Lizundia

Negu-txirta bizkarralde arrea eta orban arrez apaindutako sabelalde horixka dituen txori liraina da. Txirtak elkarren artean bereizten oso zailak dira, *uda-txirtaren* oso antzekoa baita, baina ezaugarri morfologiko ezberdin batzuez gain, izenak berak dioen bezala, *uda-txirta* udan izaten da hemen eta *negu-txirta*, aldiz, neguan. Lurrean ibili zalea da, eta bere hegalerak trakets xamarra dirudi, gehienetan bere "si, si, si" dei-kantarekin lotuta, eta hortik "siote" izenaren jatorria. Iraila erditik aurrera Talaimendiko zein **lñurritza** osoko larreetan oso arrunta da eta neguan multzo handiak osatzen ditu. Apirilaren erdirako, gehienak alde egiten dute. Toki hezeak ditu gogokoen. Batez ere intsektuz elikatzen da, baina haziak ere jaten ditu.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X						X	X	X

Migratzailea
Negutarra

AHATE TXISTULARIA

(*Anas penelope*)

Ordena: Anseriformes

Familia: Anatidae

KANALEKO PADURAN



Argazkia: Koldo Lizundia

Gorputz-luzera: 42-50 cm

Hego-luzera: 71-85 cm

Ahate txistulari emeak kolorea arre-gorrixka du eta arrak gorputza grisa eta burua nabar-gorritzat. Kopetan orban hori deigarria du. Hegan doanean, arrak orban zuri ikusgarriak erakusten ditu hegoetan. Sakonera txikiko ur gezako putzuak ditu gogoko eta bere elikaduraren oinarri haletako zenbait landare-gai ditu. Migratzailea izanik, **lñurritza** paretik itsasoz milaka igarotzen dira urtero eta horietako aleren batzuk beti geratzen dira **lñurritzan**, baina betiere eztei ondoko pasean eta negu-pasean.

Migratzailea

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
	X	X						X	X	X	

IPAR-AHATEA

(*Anas strepera*)

Ordena: Anseriformes

Familia: Anatidae



KANALEKO PADURAN

Gorputz-luzera: 46-56 cm

Hego-luzera: 78-90 cm

Argazkia: Aitor Leiza

Ipar-ahatearen egitura *basahatearen* antzekoa da, arrak lumaje gris zerrendatua du eta emeak arrea, *basahate* emearen antz handikoa. Arraren mokea gris iluna da eta emearena laranja kolorekoa. Beste ahateekin bereizteko sexu biek ispilu zuri nabarmena dute gorputzaren atzeko albo batean. Ur gezako masak ditu gogoko. Ia uretako landareak besterik ez du jaten, lehorrekoak oso nekez. **Iñurritzan**, eztei ondoko migrazioan ikusten dira gehien eta negua pasatzen urtero geratzen dira aleren batzuk. Gehienetan, beste anatido batzuekin batera, talde nahasietan ibiltzen dira.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
	X	X							X	X	

Migratzailea

ZERTZETA ARRUNTA

(*Anas crecca*)

Ordena: Anseriformes

Familia: Anatidae

KANALEKO PADURAN



Argazkia: Andoni Ruiz

Gorputz-luzera: 34-38 cm

Hego-luzera: 53-59 cm

Zertzeta arrunta Europako ahateetan txikiena da. Arrak buruan berde eta gaztaina koloreko diseinu bereizgarri bat du eta emeak aldiz kolore nabar marraduna. Bi sexuek ispilu berde bat dute gorputzaren atzealdeko albo banatan eta beste ahateetatik bereizteko oso pista ona da hau. Oso bizkor egiten dute hegan. Migratzailea da eta **lñurritzan** neguro geratzen dira ale batzuk, baina betiere bakanak. Ur gezako sakonera txikiko gunek ditu gogoko eta bertan elikatzen da. Elikatzeko ipurdi aldean uretatik kanpo altxatzen du. Batez ere landareak jaten ditu. Habia, zuhaixka azpian egiten du.

Migratzailea

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
	X	X						X	X	X	

BASAHATEA

(*Anas platyrhynchos*)

Ordena: Anseriformes

Familia: Anatidae



KANALEKO PADURAN

Gorputz-luzera: 55-60 cm

Hego-luzera: 81-95 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Basahate arrak, ugal-sasoian, buru berdea, bular arrea eta lepaldean eraztun zuria izaten du; gainerakoa gris edo marroixka du eta hankak laranja-kolorekoak. Emearen kolorea berriz arrea da. Oin palmatuak dituzte. Taldetan bizitzen da eta gauez uretatik kanpora irteten da jateko. Landareak, haziak, zizareak, zapaburuak, eta abar jaten ditu. Uretatik kanpo egiten du habia. Nahiko arrunta da **lñurritzako** biotopoen eta bertan ugaltzeaz gain, egoiliarra da, hau da, urte osoan ikus daiteke **lñurritzan**. Bertako aleak ez dira migratzaileak eta gizakiaren presentziara ohituta daude. Orokorrean **lñurritzan** agertzen diren ahateak igerilariak dira (*basahatea*, *ahate txistularia*, *ahate mokozabala*, *zertzeta arrunta*...) eta ez murgilariak (*ahate gorritzeta*, *murgilari arrunta*, *murgilari mottoduna*...). **lñurritzan**, sakonera txikiko ur azalak daudelako falta dira ahate murgilariak. Ur azalean igerian ari diren bitartean, maiz burua ur azpian sartuaz bilatzen dute janaria, gorputz osoa murgildu gabe.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

AMILTXORI ARRUNTA

(*Nycticorax nycticorax*)

Ordena: Ciconiiformes

Familia: Ardeidae



KANALEKO PADURAN

Gorputz-luzera: 58-65 cm

Hego-luzera: 90-100 cm

Argazkia: Bittor Mutiozabal

Amiltxori arruntak ditu lepoa motza, moko luze eta zorrotza eta hankak nahikoa laburrak. Lumajea grisa du bizkarraldean eta ugal-sasoian bi luma luze izaten ditu buruan. Oso gautarra denez, ez da batere erraza ikustea, egunean zehar zuhaitzetan ezkutatua egoten delako. Bere begi handi eta gorriak gauz hobeto ikusteko ditu egokituta eta horregatik gauz ateratzen da jatera; normalean ornodun zein ornogabe txikiak jaten ditu. Geldirik dagoela itxoitzen dio harrapakinari, edo oso mantso hurbiltzen da kolpe azkar batekin harrapatzeko. Habiatic irteten diren gaztetxoak asko zabalzen dira eta uztailetik aurrera ikus daitezke. Migratzailea da eta **lñurritzan** udazkeneko pasean ikustea da arruntena, baina betiere ale bakanak. **lñurritzan** ibaiaren ondoan dauden zuhaitzetan babesten da. Moko beherantz duela egiten du hegan.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
								X	X		

Migratzailea

MOKOZABAL ZURIA *(Platalea leucorodia)*

Ordena: Ciconiiformes
Familia: Threskiornithidae

KANALEKO PADURAN



Gorputz-luzera: 80-93 cm
Hego-luzera: 120-135 cm

Argazkia: Koldo Lizundia

Mokozabal zuria hegazti liraina da benetan, erabat zuria heldua denean. Hegaztiaren izenari jarraiki, mokoa luze eta punta zabalekoa dute; helduek beltz kolorekoa izaten dute mokoa eta gazteek, berriz, arrosa kolorekoa. Hankak ere oso luzeak dituzte, sakonera gutxiko uretan ibiltzeko egokiak. Hegan doanean hegoak eta lepoa oso zuzen eramaten ditu, planeoak eginez tarteka. Migratzailea da eta batez ere eztei ondorengo pase-garaian ikusten dira **lñurritzan**, taldetxo txikiak zein ale bakanak geratzen dira bertan, ale batzuek denboraldi luzeak igaroaz. Giza eraginarekiko oso sentikorrrak dira eta horrelako lekuak erraz uzten dituzte. Uretako ornogabe txikiak eta arrainak jaten dituzte; horretarako bere moko bereziaz baliatzen da, ura ezker-eskuin mugituaz eta lohiak iragaziz.

Migratzailea

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
							X	X	X		

ZANKALUZZEA

(*Himantopus himantopus*)

Ordena: Charadriiformes

Familia: Recurvirostridae



KANALEKO PADURAN

Gorputz-luzera: 34 cm
Hego-luzera: 67-83 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Zankaluzeak, izenak berak dion bezala, hankak oso luzeak ditu eta kolore gorrikoak. Harrak buru gainetik atzerantz kolore beltza izaten du, emeak berriz zuria. Bizkarraldea kolore beltzekoa izaten duten arren, gazteek zein emeek kolore marroixeago izaten dute. Hegan doanean bere zango luzeak eta lepoa erabat luzatuta eramaten dituenek, hankak buztana baino atzerago ateratzen zaizkio, eta ezaugarri horrengatik, nahiko erraza izaten da beste limikoletatik bereiztea. Oro har, hegazti otzana den arren, molestatzen bada "kii-ik-kii-ik" moduko hots bat ateratzen du eta gainerakoan "kaik-kaik" moduko kantu bat izaten da bere erreklamorik ohikoena. **Iñurritzan** habiarik egiten ez duen arren, Euskal Herriko beste hezegune batzuetan ugaltzen da. **Iñurritzan** udaberrian eta udazkenean ikusten dira alerik gehiena. Ibai-ertzak edo azalera txikiko guneak dituzte gogokoen eta elikatzeko ere hor bilatzen dituzten intsektuak, nahiz eta ornogabeak ere jaten dituzten. Hezeguneak desagertzean datza hauentzat mehatxurik nagusia.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKA	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
			X	X			X	X			

Migratzailea

TXIRRITXO TXIKIA

(*Charadrius dubius*)

Ordena: Charadriiformes

Familia: Charadriidae

KANALEKO PADURAN



Argazkia: Andoni Ruiz

Gorputz-luzera: 16-18 cm

Hego-luzera: 32-35 cm

Txirritxo txikiak bizkaralde arre-grisaxka eta sabelalde zuria ditu. Aurpegia eta lepoa zuriak ditu, lepoan eraztun beltz bat du eta kopetan marra beltz bat. Hegan, ez du *txirritxo handiak* hego-gainaldean duen marrarik agertzen. **Iñurritzako** ibai edo hondartza-inguruetan egiten du habia; habia babesteko estrategia politak erabiltzen dituzte, batzuetan, hegalaldi oso bereziak eginez eta, besteetan, zauritu-itxurak eginez harraparia habiatik urruntzeko. Jatorrizko habia-lekuak ibai-inguruetakoko legar-hobiak baditu ere, Gipuzkoan hauek oso urriak direnez, landarerik gabeko obretako betelanak aukeratzen ditu. **Iñurritzako** betelanak kendu zirenean, landarerik gabeko une asko sortu ziren, eta orduan hasi zen bertan habiak egiten, baina orain, landarediak leku horiek estali dituenean, hondartza inguruak erabiltzen ditu horretarako. Txitak nidifugoak dira, jαιο eta berehala habiatik kanpora ibiltzen hasten direnak. Batez ere uretatik hurbil harrapatzen dituen ornogabeak jaten ditu eta, migratzailea denez, **Iñurritz**an udaberri-udan bakarrik ikus daiteke, baina kopuru txikitan betiere.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
		X	X	X	X	X	X	X			

TXIRRITXO HANDIA

(*Charadrius hiaticula*)

Ordena: Charadriiformes

Familia: Charadriidae



KANALEKO PADURAN

Gorputz-luzera: 17-19,5 cm

Hego-luzera: 35-41 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Tirritxo handiak, txirritxo txikiarena baino egitura handiagoa duen arren, nahasi egin daitezke biak, batez ere gazteen lumajea dutenean. Honek, *txirritxo txikiak* ez bezala, mantua gaztaina kolore gehiagokoa du eta be-kain-gaina zuria. Hegan, marra zuri bat ikusten zaio, *txirritxo txikiari* ez, ez baitu. Moko berriz laranja kolorekoa du eta ale helduek moko-punta beltza dute. Hankak ere mokoaren kolore berdinekoak ditu. **Iñurritzan** urte osoan ikusten bada ere, batez ere negua pasatzera etortzen da. Normalean lohi inguruetan edo leku lehor eta hareatsuenetan ikusi ohi da, ez duelako gustuko oinak bustitzea. Paduran, ibai-ertzetan elikatzea nahiago izaten du eta batez ere ornogabe txikiz elikatzen da. Elikatzerakoan "korri-gelditu-jan" sekuentzia egiten du. Migratzailea da eta pase-garaian hondartza aldea ere gogoko izaten du. Ipar eta Europa Erdiko kostalde atlantiarrean ugaltzen da.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X			X	X	X	X	X

Migratzailea
Negutarra

TXIRRI GRISA *(Pluvialis squatarola)*

Ordena: Charadriiformes

Familia: Charadriidae

KANALEKO PADURAN



Gorputz-luzera: 26-29 cm

Hego-luzera: 56-63 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Txirri grisa, izenak berak dioen bezala, negu partean erabat gris kolorekoa izaten da eta udan, berriz, sabelalde osoa beltz jartzen zaio. Ale gazteek tonu marroiagoak izaten dituzte eta, ondorioz, *urre-txirri arruntarekin* nahas daitezke. Azken honek baino moko indartsu eta luzeagoa du *txirri grisak*. Oso migratzailea da, eta **lñurritzan** lehen aleak abuztu-bukaera alderako has daitezke ikusten. Udazkenean edo udaberriko pase-garaietan ere ohikoa da ale batzuk bertan ikustea. Batez ere ornogabeak jaten ditu, "korri-gelditu-jan" sekuentzia eginez. **lñurritzan**, ibaiaren ertzeko marearreak ditu gogoko. Ipar-polotik gertuko lurraldeetan ugaltzen da gehien; Eurasiari dagokionez, Siberiako kostaldean bakarrik ugaltzen da.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
			X	X			X	X	X	X	

Migratzailea

TXIRRI LODIA (*Calidris canutus*)

Ordena: Charadriiformes

Familia: Scolopacidae



KANALEKO PADURAN

Gorputz-luzera: 23-26 cm

Hego-luzera: 47-53 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Txiurri lodia, bere izenak adierazten duen bezala, txirri sendo eta handia da. Udaberri-udan gorputza laranja-gorritzat kolorekoa jartzen zaio eta neguan, aldiz, gris kolorekoa. Moko beltza du eta bere hanka berdeak proportzioan beste txirriek baino motzagoak izaten ditu. **Iñurritzan** maiatzean eta eztei ondorengo pasean ikusten dira ale gehienak eta udakoa edo tarteko luma-jea duten aleak ikusten dira bi kasuetan. Lohi biguneko zonak ditu gogoko eta bere mokoarekin haztatuz harrapatzen dituen ornogabe txikiz elikatzen da. Itsasbazterra ere oso gogoko izaten du eta marearteko arroketan ere ibili izan da **Iñurritzan**. *Txiurri lodia* Ipar-politik gertu dauden uharte eta kostaldeetan ugaltzen da. Herbeheretan eta Erresuma Batuan kopuru handitan negua igarotzen badu ere, Afrikako mendebaldean, Hego Afrikan eta Hego Ameriketako bi aldeetan (Atlantikoan eta Pazifikokoan) ere igarotzen du negua. Egiatzatu da 3000 km-ko hegaldi luzeak egiten dituztela.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
			X	X				X	X		

Migratzailea

TXIRRI KURLINTA

(*Calidris ferruginea*)

Ordena: Charadriiformes

Familia: Scolopacidae

KANALEKO PADURAN



Argazkia: Aitor Leiza

Gorputz-luzera: 18-19 cm

Hego-luzera: 42-46 cm

Txirri arruntaren oso antzeko hegaztia da *txirri kurlinta* eta harengandik be-reizteko dituen ezaugarriak dira: mokoia eta hankak luzeagoak. Eztei-lumajean sabelaldea eta burualdea gorri iluna jartzen zaizkio eta neguan, aldiz, grisak ditu. **lñurritzan** hegazti hau migrazioko paseetan baino ez da ikusten. Eztei ondoko migrazioan abuztuaren bukaeratik azaro hasiera arteko tarte horretakoak izaten dira erregistrorik gehienak. Udaberriko pasean oso urria izaten da eta neguan ez da alerik erregistratu hemen. Ia orno-gabeak besterik ez du jaten eta migrazioan itsas zizareak ditu gogokoen. Elikatzen ari denean *txirri arrunta* baino gehiago mugitzen da alboetara. **lñurritzan** beste txirri mota batzuekin batera taldean egoten da.

Migratzailea

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
			X	X			X	X	X	X	

TXIRRI ARRUNTA

(*Calidris alpina*)

Ordena: Charadriiformes

Familia: Scolopacidae



KANALEKO PADURAN

Gorputz-luzera: 16-20 cm

Hego-luzera: 38-43 cm

Argazkia: Aitor Leiza

Txirri arruntak eztei-lumaldian goialdea ezkatatsua eta tonu gorritzakoa du eta sabelaldea beltza jartzen zaio. Neguan, berriz, lumajearen gainaldea eta burualdea gris uniformekoa izaten du, eta sabelaldea zuria. Ale gazteek bizkarrean, buruan eta lepoan tonu nabarrak izateaz gain, saihetsetan edo bularrean mantxa beltz txiki batzuk izaten dituzte. Hankak eta mokoa kolore beltzekoak ditu eta mokoa zuzena edo zertxobait beherantz kurbatua muturrean. **lñurritzako** limikola zangaluze arruntenetakoa da eta udaberri edo udazkeneko pase-garaian ibai-ertzeko limoetan ornogabe txikiak jenez ikusten dira alerik gehienak. Talde handiak osatzen dituzte eta nahasita joaten dira beste kuliska mota desberdinekin. Mokoa oso azkar sartzen dute lokatzetan eta oso biziak dira.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X			X	X	X	X	X

Migratzailea
Negutarra

ISTINGOR ARRUNTA

(*Gallinago gallinago*)

Ordena: Charadriiformes

Familia: Scolopacidae

KANALEKO PADURAN



Argazkia: Andoni Ruiz

Gorputz-luzera: 25-27 cm

Hego-luzera: 44-47 cm

Istingor arrunta tamaina ertaineko zangaluzea da eta moko nabarmen du luzea, gorputzaren tamainarekiko neurriz gainekoa. Edozein urtarotan tonu nabarrak ditu nagusi. Bere moko luzearen gora-behera azkarrekin zundatzen du lurra elikagai bila. Batez ere lehorreko ornogabeak jaten ditu, lurreko har eta zizareak batez ere. Negua pasatzen iraila ezkerre egoten da **lñurritzan** eta apurka-apurka kopurua ugaritzen joaten da, hotz-boladak direnean kopurua ugarituz. Gehienetan bakarka edo talde txikitan ibiltzen bada ere, **lñurritzan** nahiko espezie ugaria da. Padura ertzean edo lur zingiratsuetan igarotzen du negua, baina betiere larre, ihitoki eta abarrak ere tartekatuz. Europako ipar eta erdialdean ugaltzen da. Iberiar Penintsulan, kantauriar mendikateetako zelai altuetan ere ugaltzen dira ale gutxi batzuk. Hegalera oso mugitua du, "zig zag", bizkor eta asko eginaz. Zutoin gaitan jartzen da kantatzeko.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X					X	X	X	X

KULISKA GORRIA

(*Limosa lapponica*)

Ordena: Charadriiformes

Familia: Scolopaciidae



KANALEKO PADURAN

Gorputz-luzera: 37-39 cm

Hego-luzera: 70-80 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Kuliska gorria zangaluzea da; udaberrian kolore gorri bizia izaten du eta neguan kolore arrea. Moko luze eta zorrotza izateaz gain, gorantz zerbait kurbatuta izaten du eta oinarria arrosa kolorekoa jartzen zaio neguan. Migratzailea izanik, **lñurritzan** batez ere udaberri eta negu pasean ikusten da. Marea arteko limoak ditu gogoko eta bertan ibiltzen da bere moko zorrotza lohi azpian sartuz krustazeo eta zizareak jaten. Moko luzea duenez, beste kuliskekin ez du lehiatzen, batzuek azaleko ornogabeak jaten dituztelako, beste batzuek erdikoak eta hauek sakonekoak. Hemendik pasatzen direnak, Siberia eta Eskandinabian ugaltzen dira.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
		X	X	X			X	X	X	X	

Migratzailea

KULISKA TXIKIA

(*Actitis hypoleucos*)

Ordena: Charadriiformes

Familia: Scolopacidae

KANALEKO PADURAN



Argazkia: Aitor Leiza

Gorputz-luzera: 18-20 cm

Hego-luzera: 32-35 cm

Kuliska txikiak ditu: bizkaralde arre-grisaxka, sabelalde zuria eta marratxo arre eta grisez apaindutako bular zuria. Hankak eta mokoak luzeak ditu eta hegoak zorrotzak. Oinez ibiltzean burua eta isatsa astintzen ditu, buztana gora eta behera mugituz. Izutzen denean hegan egiten du ihes ur-azaletik gertu. Ornogabeak jaten ditu eta migratzailea da. **Iñurritzan**, ibai-ertzean ibiltzen da eta urte osoan ikus daiteke. Euskal Herriko zenbait ibaitan ere ugaltzen da. Askotan aipatzen da solapamenduak gertatzen direla, migratzaileen, ugalduek ez diren eta urtean jaiotakoaren artean.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

KULISKA ZURIA

(*Tringa nebularia*)

Ordena: Charadriiformes

Familia: Scolopacidae



KANALEKO PADURAN

Gorputz-luzera: 30-33 cm

Hego-luzera: 68-70 cm

Argazkia: Koldo Lizundia

Kuliska zuria zangaluzea izateaz gain, bere ezaugarrietako bat oso gris argia izatea da eta hankak berdeak. Horrez gain, bere mugimenduen bizkortasuna da bereizgarrietako bat. **Iñurritzan**, padura hobesten du eta, beraz, gehienbat ibai-ertzean ibili zalea da. Askotan bere indar handiko ahotsak adierazten du bere presentzia. **Iñurritzan**, ia urte osoan ikus daitekeen arren, negu-pasean ugariagoa da. Eztei aurreko pasean ez da hain ugaria, eta, oro har, nahiko bakana da. Poliketoak, krustazeoak, arrain txikiak eta abar janez elikatzen da. Saltaka arrantzatzen ditu arrainak, eta, beste batzuetan, lepoa bat batean luzatu eta gezia bezala jaurtikiz. Paleoartikoaren iparraldean ugaltzen da.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
			X	X			X	X	X	X	

Migratzailea

BERNAGORRI ARRUNTA *(Tringa totanus)*

Ordena: Charadriiformes

Familia: Scolopacidae

KANALEKO PADURAN



Gorputz-luzera: 24-27 cm

Hego-luzera: 47-53 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Bernagorri arrunta tamaina ertaineko zangaluzea da, urte osoan hankak gorriak izaten ditu eta lumajea tonu nabar-ezkatatsua udan eta grisagoa neguan. Neguan, mokoaren oinarria gorri kolorekoa izaten du eta gainerakoa beltza. Pausatzen denean, hegoak ireki egiten ditu.

Iñurritzan ia urte osoan ikusten den arren, migrazio-garaietan ugariagoa da. **Iñurritzan** padura ertzetako limoetan eta Malla Harri inguruko marear-teko lautadetan elikatzen da, batez ere poliketoz, ornogabe txikiei muzin egin gabe. Europako Ipar eta Erdialdean ugaltzen da.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X			X	X	X	X	X

Migratzailea
Negutarra

ANTXETA MOKOGORRIA

(*Chroicocephalus ridibundus*)

Ordena: Charadriiformes

Familia: Laridae



KANALEKO PADURAN

Gorputz-luzera: 34-37 cm

Hego-luzera: 100-110 cm

Argazkia: Bittor Mutiozabal

Antxeta mokogorriak hegala punta zorrotzekoak ditu eta hegan arin egiten du. Helduei ugalketa-garaian burua nabar iluna ikusten zaie. Neguan, berriz, buru atzeko orban marroi txiki bat izan ezik gainerantzeko buru guztia zuria izaten dute, bizkaraldea grisa eta hego-puntak beltzak. Hegan egitean, hegoaren aurrealdean marra zuri moduko bat izateaz gain, hego-azpiak nahiko ilunak ikusten zaizkie. Mokoak eta hankak gorrixkak dira helduetan eta haragi kolorekoak gazteenetan. Uztailean eta abuztuan ikusten diren ale gazteek txokolate kolorekoak izateaz gain, hegoetan orban zuri berezia izaten dute eta hegoetan luzetara marra grisa. Orojalea da eta udazken-negu garaian ugariagoa den arren, ia urte osoan ikus daiteke **lñurritzan**, banaka zein taldetxo txikitik. Gero eta urbanoagoak bihurtzen ari da, parkeetako jendearen janari-apurren bila.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKA	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X			X	X	X	X	X	X

Migratzailea
Negutarra

MARTIN ARRANTZALEA

(*Alcedo atthis*)

Ordena: Coraciformes

Familia: Alcedinidae

KANALEKO PADURAN



Argazkia: Andoni Ruiz

Gorputz-luzera: 16-17 cm

Hego-luzera: 24-26 cm

Martin arrantzaleak bizkarraldea berde-urdinxka distiratsua du eta sabelaldea arre-gorrixka. Gorputz sendoa, hego eta isats laburrak, buru handia eta moko luze eta sendoa dituenek, bizkor eta altuera txikian torpedo bat balitz bezala egiten du hegan, eta, ondorioz, ongi ikustea zaila izaten da. Leku garai batetik edo airean denboraldi labur batez geldirik egonda egiten du salto arrantzara. Gehienbat arrain txiki eta intsektu urtarrak jaten ditu. Kantua ere zorrotza eta berezia du. **Iñurritzan**, nahiko arrunta den arren, udazken-negu garaian ugariagoa da. **Iñurritzara** etortzen diren aleak, jaiotokietatik leku berrien bila irteten diren gazteak izaten dira. Ugaltzeko kalitate ona duten ibai zein erreka-errekatoak aukeratzen ditu eta erreketan gora egiten dute lokatzezko erreka-bazterreko pareten bila, beraietan egiten baitute habia.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X				X	X	X	X	X	X

LARRE-BUZTANIKARA

(*Motacilla flava*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Motacillidae



KANALEKO PADURAN

Gorputz-luzera: 17 cm

Hego-luzera: 25 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Larre-buztanikara isats luzeko paseriformea da, oso arina eta gorputz osoan kolore horiak zein berdexkak nagusi dituen. Azpiespezie askoko hegazia da eta horietan arrek ezberdintasun handiak dituzte lumajean. Hanka beltzak ditu eta mokoa oso fina. Leku zabaletan ikus daiteke, baina ez da *buztanikara horia* bezain urzalea. *Buztanikara horiak* baino motzagoa du buztana, eta hegan doala horrek bereizten ditu. **lñurritzan**, gutxienez bi urtetan sumatu da kantari, leku eta garai aproposan, baina bere ugalketa ezin izan da berretsi. Euskal herrian ugaltzen dena *M.f. iberiae* da, eta **lñurritzan** gainerako azpi-espezietan ugariena britainiarra (*M.f. flavissima*) da, nahiz eta Eskandinaviakoa (*M.f. thumbergi*) eta Alemaniakoa (*M.f. flava*) ere maiz samar ikusten diren. Migratzailea da eta multzo handienak duna gaineko larreetan, Talaimendiko belardietan eta Ixpillako urmalean ikusten dira. Belardi hezeak maite ditu eta hango intsektuak besterik ez du jaten. *Buztanikarak*, izenak dioen moduan, buztana gora eta behera mugitzen du etengabe.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKA	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
		X	X	X	X	X	X	X	X		

Migratzailea

BUZTANIKARA HORIA

(*Motacilla cinerea*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Motacillidae

KANALEKO PADURAN



Gorputz-luzera: 19 cm

Hego-luzera: 26 cm

Argazkia: Bittor Mutiozabal

Buztanikara horiak ditu gorputz liraina, isats luzea, nahiko moko luzea, hanka luzeak, bizkaraldea gris urdinska eta sabelaldea horia. Gainerako buztanikara guztiek bezala, hegaldi uhinkatua du. **Iñurritzan** negutar arrunta da, nahiz eta gehienetan ale bakartiak ikusi. Batez ere, padurako ibai-ertzetan ikusten da. Maiz ibiltzen da lurretik korrika eta tarteka hegaldi txikiak egiten ditu intsektuak harrapatzeko. *Buztanikarak*, izenak dioen moduan, buztana gora eta behera mugitzen du etengabe, eta buztanikaren artean gehien mugitzen duena hau da. Pausatzen denean horizontalki edukitzen du buztana. Lotura estua du urarekin, eta honegatik arrunta da ur-ertzean.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

PAPARURDINA

(*Luscinia svecica*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Turdidae



KANALEKO PADURAN

Gorputz-luzera: 14 cm
Hego-luzera: 20-22 cm

Argazkia: Bittor Mutiozabal

Paparurdinek, izena berak dioen bezala, papar urdina dute, orban laranja edo zuri batekin. Arrek emeek baino askoz ere kolore deigarriagoak izaten dituzte eta gazteek, aldiz, kolore pikarta edo arreagoa. Inguru hezeak ditu gogoko eta **lñurritzan** pase-garaian da ugaria. Bere moko mehearen laguntzaz intsektuak jaten ibiltzen da lurrean. Paduretako landareen azpian egoten da, landareetan edo hostoei buelta emanaz zomorro bila, horregatik dira hain zailak ikusteko. Migratzailea da eta hedapen zabaleko txoria da.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
		X	X			X	X	X	X		

Migratzailea

AHATE MOKOZABALA

(*Anas clypeata*)

Ordena: Anseriformes

Familia: Anatidae



IXPILLAKO URMAELEAN

Gorputz-luzera: 44-52 cm

Hego-luzera: 73-82 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Ahate mokozebala ur-gainazaleko ahatea da, bereizgarri bezala dituen moko luze-zabala, eta egitura orokor oso trinkoa. Ar helduaren lumajea oso ikusgarria da, burua berdea du eta gorputza nabar-gorrixka eta zuria nahasian dauzkana. Emearen lumajea aldiz arre tantoduna da. Sakonera txikiko ur-masetan bilatzen dituen ornogabe txikiz eta moko iragazita lortzen duen landare-gaiak elikatzen da. **Iñurritzan**, eztei ondorengo migrazioan azaldu izan dira eta batez ere Ixpillako urmaelean ikusten badira ere, ibaiko marearteko zonak ez ditu alde batera uzten. Igerian doanean, mokoarekin ura ia ukituz joaten da.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
								X	X	X	

Migratzailea

TXILINPORTA TXIKIA

(*Tachybaptus ruficollis*)

Ordena: Podicipediformes

Familia: Podicipedidae



Argazkia: Aitor Leiza

Gorputz-luzera: 25-29 cm

Hego-luzera: 40-45 cm

Txilinporta txikiak neguan bizkarra eta lepoaren atzealdea eta pileoa marroi ilunak ditu. Udaberrian, ugaltze-garaian, aldiz, lepoa gaztaina kolorekoa du eta gainerakoa beltza. Flotazio-lerroa oso goian du eta maiz murgiltzen da. **Iñurritzan**, urmaeleko sakonera gutxiko inguru batean egiten du habia, baina betiere habia ezartzeko landaredi-estaldura duten lekuak bilatzen ditu. Habia beti uretan eraikitzen du, eta ez hondoratzeko, beti materialak garraiatzen ibili behar izaten du. Hegalari eskasak dira, baina uretan benetan trebeak. Horretarako hankak oso atzeratuta dituzte, eta hatzak lobuludunak dira propulzioa hobetzeko. Jaio berritan txiten lumak ez dira iragazgaitzak, eta gurasoak bizkar gainean eramaten dituzte, baina berehala gurasoer igerian jarraitzeko gai izaten dira. Gurasoak txitak banatu egiten dituzte beren artean, eta bakoitza berez bakarrik arduratzen da. Izututa dagoenean, erabat ur azpian ezkututzen da, burua bakarrik agerian utziz. Oso tamaina txikiko ornodunak eta ornogabeak jaten dituzte. **Iñurritzan**, ugaltzeaz gain, urte osoan ikus daiteke baina betiere kopuru txikian.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

LERTXUNTZO TXIKIA

(*Egretta garzetta*)

Ordena: Ciconiiformes

Familia: Ardeidae



IXPILLAKO URMAELEAN

Gorputz-luzera: 55-65 cm

Hego-luzera: 88-106 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Ikusgarria da lertxun-mota hau, erabat zuria da eta, bere mugimenduen eta egituraren lerdetasunagatik eta arintasunagatik nabarmentzen da. Hegan indartsu eta sakon egiten du, lepoa gordeta duela. Mokoia erabat beltza du, hankak beltzak eta oinak horiak. Helduek ugalketa-garaian bi luma luze izaten dituzte garondoan eta beste luzeago batzuk ere bai bularraldean eta bizkarraldean. Sakonera txikiko uretan arrain txikiak eta ornogabeak jabez elikatzen da. **Iñurritzan**, urte osoan ikusten da, nahiz eta pase-garaietan izan ugariena eta betiere kopuru txikian. **Iñurritzan**, arrantzarako bi teknika erabiltzen ditu: poliki-poliki harrapakinarengan hurbildu eta lepoa gezi baten gisa jaurtikiz, edo eta lokatz-limo artean ezkutatzen diren arrainak hankekin uxatu eta gero lepoa jaurtikiz harrapakinari helduz. Lotegiak erabiltzen dituzte neguan talde ertainak sortuz.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKA	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Migratzailea
Negutarra

LERTXUN HAUSKARA

(*Ardea cinerea*)

Ordena: Ciconiiformes

Familia: Ardeidae

IXPILLAKO URMAELEAN



Argazkia: Andoni Ruiz

Gorputz-luzera: 84-102 cm

Hego-luzera: 155-175 cm

Hegazti gris handia da eta, pausatuta dagoenean, bereziki liraina. Helduek kopeta zuria dute, bere pileo beltzarekin kontraste handia egiten duena. Buru gainean ugalketa garaian luma luzeak izaten ditu. Gazteek berriz buru osoa grisa dute pileo hasiberri ilunarekin. Bizkarralde gris uniformea du helduak, eta gaztearenak han-hemenka orban nabarrak izaten ditu. Hegan egitean lepoa "S"-eran eramaten du ardeido guztiek bezala. Sakonera txikiko uretan arrainak harrapatzen ditu, baina karraskariak, ugaztun txikiak, sugeak edo ornogabe txikiak ere jaten ditu. **Iñurritzan** ale gehienak udaberri zein udazkeneko pase-garaian agertzen badira ere, neguan ohi-koa da **Iñurritzan** ikustea baina betiere kopuru txikian. Gipuzkoan, urte gutxitan onera egin du populazioak; Ugaltzeko, kolonia osatzen hasia dago.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X				X	X	X	X	X

Migratzailea
Negutarra

LERTXUN GORRIA

(*Ardea purpurea*)

Ordena: Ciconiiformes

Familia: Ardeidae



IXPILLAKO URMAELELEAN

Gorputz-luzera: 70-90 cm
Hego-luzera: 110-145 cm

Argazkia: Koldo Lizundia

Lertxun gorriaren lumajean tonu gris eta nabar-gorri ilunak dira nagusi. Migratzailea izanik **lñurritzan** udaberritik udazkenera bitartean ikus daiteke. Hegazti handia da eta pausatuta dagoenean benetan liraina. Gehienbat lez-kadietan sartuta pasatzen du eguna eta horregatik askotan ez da erraza izaten ikustea, gainera gehienetan ale bakanak izaten dira. Batez ere arrainak eta anfibioak jaten dituen arren, ez die muzin egiten lehorreko txori, karraskari eta narrastiei. Sastraketan ezkutaturik egiten du ehiza.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
			X	X			X	X	X		

Migratzailea

UROILANDA HANDIA

(*Rallus aquaticus*)

Ordena: Gruiformes

Familia: Rallidae



Gorputz-luzera: 22-28 cm

Hego-luzera: 38-45 cm

Argazkia: Koldo Lizundia

Uroilanda handiaren lumajea ilun xamarra den arren, bizkarraldea marroi jaspeatua du. Bularraldea eta sabelaldea gris urdinxka ditu eta saihtesean marra zuri eta beltzak. Isatsaren azpialdeko lumak kolore zuri zikinekoak ditu eta urrutira ikusten dira buztana askotan altxatzen dutelako. Ale gazteek, berriz, bizkarraldea zein azpialdea erabat nabarrak dituzte. Landaredi trinko eta hezeetan ibiltzeko moldatuta dauka gorputza eta horregatik aurrez edo atzealdetik begiratuta oso estua ikusten zaio gorputza. Hanketako hatzak, *uroiloak* bezala, oso luzeak ditu urgaineko landareetan ibiltzeko. **Iñurritzan**, ur gezako zein gazi-gezako eremuetan ibiltzen da, baina betiere uraren ertzean landaredi trinkoa dagoen inguruetan. Habia ere lezkadi itxian egiten du eta ornogabez elikatzen da, bai uretakoez zein lehorrekoez; Landareak ere jaten ditu. Denbora gutxi egiten du landaredi trinkoko zonetatik kanpo eta, ondorioz, oso zaila izaten da ikustea. Aldiz, ia urte guztian entzuten da bere kantu zaratatsua, gehien bat iluntze aldera. Egoiliarra denez **Iñurritzan** urte osoan ikus daiteke, baina betiere ale bakanak.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

UROILOA

(*Gallinula chloropus*)

Ordena: Gruiformes

Familia: Rallidae



IXPILLAKO URMAELEAN

Gorputz-luzera: 32-35 cm

Hego-luzera: 50-55 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Uroiloak ditu gorputz sendo eta iluna, hanka luze eta berdeak eta punta horia duen moko gorria. Lezka, kanabera, eta ibai ondoko landaredi trinkotan ibiltzeko moldatutako hegaztia dugu hau. Horretarako bere gorputza lateralki konprimatzeko gai da, bizkarrezurra oso malgua du, hegoak motzak eta hanketako hatzak oso luzeak, ur gaineko landareen gainean ibiltzeko eta igeritarako. **Iñurritzan**, landaredi ugariko guneak ditu gogoko eta bertako landareak jaten ditu batez ere. **Iñurritzan** ugaltzen da eta habia ur-ertzeko landaredian ezkutatuta egiten du; txitak nidifugoak dira. **Iñurritzan** urte osoan ikus daiteke, baina askotan bere kantu indartsuarengatik antzematen da han dabilela, landare artean ezkutatuta ibiltzeko ohitura duelako. Nekez ikusten da hegan, eta nabarmena izaten da, baldar eta hankak zintzilik dituela egiten duelako. *Kopetazuriaren* antza badu, baina hau erabat beltza da eta *uroiloak*, aldiz, alboetan eta buztan-azpia zuriak ditu eta, gainera, *kopetazuriak* ez bezala, buztanak "tik" azkar batzuk egiten ditu gora eta behera.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

KOPETAZURI ARRUNTA

(*Fulica atra*)

Ordena: Gruiformes

Familia: Rallidae

IXPILLAKO URMAELEAN



Gorputz-luzera: 36-38 cm
Hego-luzera: 70-80 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Kopetazuriak gorputz sendo eta beltza du eta, izenak dioen bezala, mokia zein kopeta zuriak ditu. Oinak oso handiak ditu, urertzeko landaredi gainean ibiltzeko moldatuak. **Iñurritzan** Ixpillako urmaelean negu oro izaten da aleren bat, ur gezako sakonera handiko putzuak ditu gogoko eta horregatik ez da hain ugaria **Iñurritzan**. Urpean eta lehorrean lortzen dituen landare-gaiak jaten ditu batik bat. Izutzen denean ez du gustuko hegan egitea eta ur gainean korrika egiten du ihes. *Uroiloaren* antza du, baina honek ez du *uroiloak* duen zati zuririk lumetan, bakarrik mokia eta kopeta ditu zuriak.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X							X	X	X

Migratzailea
Negutarra

UHALDE-ENARA

(*Riparia riparia*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Hirundinidae



IXPILLAKO URMAELEAN

Gorputz-luzera: 12 cm
Hego-luzera: 28 cm

Argazkia: Ricardo Rodriguez

Uhalde-enara gure enaren artean txikiena da bera. Beste enaretatik bereizteko orduan, bizkarraldeko kolore gris-marroiaz gain, sabel zuriaren gainean duen (papar aldean) eraztun iluna da bereizgarri nagusietako bat. Hegan harrapatzen dituen intsektuak jaten ditu. Habiak egiteko ibai-ertzak ditu gogoko eta **lñurritzan** ugaltzen ez den arren, inguruko ibaietan ugaltzen da. Kolonia txikiak osatzen dituzte eta lurrezko paretak izaten ditu gogoko, bertan egindako tunel moduko batzuen barruan jartzen baitute habia, nahiz eta hauen faltan, gizakiak jarritako hodieta aurkitzen duten leku egokia. Migratzailea izanik, **lñurritzan** udazkeneko zein udaberriko pase-garaietan da ugariena eta bertako lezkadiak lotegi bezala ere erabiltzen ditu.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
		X	X	X			X	X	X		

Migratzailea

ENARA ARRUNTA

(*Hirundo rustica*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Hirundinidae



Gorputz-luzera: 19 cm

Hego-luzera: 33 cm

Argazkia: Ricardo Rodriguez

Enara arrunta gure enaren artean ezagunenetakoa da. Beste enarek baino hego luzeagoak ditu eta isatsa, berriz, urkilatua eta luzea. Munduan gehien aztertua izan den espezieetako bat da eta horrek asko lagundu du migrazioa, hautespen sexuala, ugalketa zein beste hainbat xehetasun ezagutzen. Gizakiarekiko hurbiltasuna medio, herri-kulturan ere oso txertatuta daude. Hegan harrapatzen dituen intsektuak jaten ditu eta udaberri euritsua suertatzen bada, **lñurritza** bezalako hezeguneetan eklosionatzen diren intsektuz eta baserrietako ukuiuetan, ganadu artean, aurkitzen dituen intsektuz elikatzen da. Hegalera oso baxua du eta belarrak ukitzeko zorian pasatzen da. *Enara arruntan* lehen aleak hona iristearekin batera hasten dela esaten da udaberria. **lñurritzan** eta inguruetakoko baserri zein estalpe ugarietan egiten du habia; habia urtero leku berean egiten du eta bikote berberarekin izaten da betiko. Migratzaile handiak dira eta eztei ondoko migrazioetan, milaka enaren lotegiak osatu izan dira **lñurritzako** lezkadietan. Azken urteetan, giza jardueren aldaketa tarteko (baserrien desagertzeak, intsektizidak eta abar), beheraka nabarmena izan du espezie honen populazioak.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
		X	X	X	X	X	X	X	X		

Migratzailea
Habiagilea

ENARA AZPIZURIA

(*Delichon urbica*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Hirundinidae



IXPILLAKO URMAELEAN

Gorputz-luzera: 19 cm
Hego-luzera: 33 cm

Argazkia: Bittor Mutiozabal

Enara azpizuriak, izenak berak dioen bezala, sabelalde osoa zuria du eta beste enaretatik bere ipurdi- gain zuriak bereizten du. Airean harrapatzen dituen intsektuak jaten ditu. Orain dela gutxi arte mendi zein pareta harri-tsetara lotua egon den espezie bat izan den arren, gaur egun edonolako herri zein eraikuntzetara ederki egokitu da. **Iñurritza** inguruan, edozein te-latupeko estalpetan egiten du habia eta eraikitzeko lokatzaren bila **Iñu-rritzako** marearteko lohietara joaten da. Habia lokatzezko bolak elkarren gainean itsatsita egiten du eta urtero leku berera etortzen direnez, aurreko urteko habia ere konpondu izan dute. Ia urtero bikotez aldatzen dute eta arren % 20ak bikote nagusiaz kanpoko beste bikote bat ere izaten du. Mi-gratzailea izanik, udaberri eta uda igarotzen dute gure artean.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKA	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
			X	X	X	X	X	X	X		

Migratzailea
Habiagilea

ERREKATXINDORRA

(*Cettia cetti*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Sylviidae

IXPILLAKO URMAELEAN



Argazkia: Bittor Mutiozabal

Gorputz-luzera: 13-14 cm

Hego-luzera: 15-19 cm

Errekaxindorra txori txiki eta oso izua da. Bizkarraldea arre-gorrixka eta sabelaldea arre-grisaxka ditu. Leku hezeetako sastraka artean ibiltzeko egokitua du gorputza, horregatik hegoak oso laburrak eta biribilduak ditu. Isatsa ere oso laburra du eta sarritan altxatuta eramaten du. Gustuko ditu lurra edo lurretik gertuko eremuak, baina ekiditen du uretan irteten den landaretza. Batik bat intsektiboroa da, baina neguan haziak ere jaten ditu. **Īnurrirtza** osoan nahiko hedatua eta arrunta izan arren, oso zaila da bera ikustea, baina bere kantu "pliuut-plit-pluit" indartsu eta deigarriarengatik jakiten da nondik nora dabilen. Oso goiz hasten da kantuan bere territoria aldarrikatzen, eta ez da harrizkekoa sasoiak kanpora ere entzutea. Europa hegoaldeko hegaztia dugu hau.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

UR-BENARRIZA

(*Acrocephalus paludicola*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Sylviidae



Gorputz-luzera: 13 cm
Hego-luzera: 16-20 cm

Argazkia: Bittor Mutiozabal

Ur benarrizaren lumajearen ezaugarriak nagusienetakoa da, bekain zurri-horiatz gain, buru gainean ere horrelako beste marra deigarri bat izatea. Europa osoko hegazti paseriformeetan mehatxatuena dago kontsideratua. Bielorrusia, Polonia edo Ukraina inguruetan ugaltzen den hegazti hau **lñurritzatik** pase-garaietan bakarrik ikusten da, baina betiere ale bakanak izaten dira eta lezkadietara lotuta. **lñurritza** bezalako padura, lezkadi eta hezeguneak ezinbestekoak dira, Afrikatik Europa Iparralderako bidaietan, elikatu eta atsedean hartu ondoren beraien bidaiak luzeei jarraipena emateko. Elikatzeko orduan nahiko intsektu handiak harrapatzen ditu, besteak beste, odonatoak, araknidoak, lepidokteroak eta koleopteroak.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
			X				X	X			

Migratzailea

BENARRIZ ARRUNTA

(*Acrocephalus schoenobaenus*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Sylviidae

IXPILLAKO URMAELEAN



Argazkia: Bittor Mutiozabal

Gorputz-luzera: 13 cm

Hego-luzera: 17-21 cm

Benarriz arruntaren lumajearen ezaugarri nagusienetakoa da bere bekain zuri bakarra eta deigarria, zeinak asko laguntzen duen beste lezkadietako hegaztietatik bereizten. Lezkadi trinkoak ditu gogoko eta bertan aurkitzen dituen intsektuz elikatzen da. **Inhurritzan** Ixpillako urmaelean nahiko arrunta da migrazio-garaian. Apirila eta iraila bitartean ikus daiteke, baina udaberriko pasean ugariagoa izaten da. Negua Afrikan igarotzen du, Saharatik behera. Lezkadi barneetan ibiltzen denez, ikusteko ez da batere erraza eta horregatik askotan bere kantua entzunda errazago aurkitzen da.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
			X	X		X	X	X			

Migratzailea

LEZKARI ARRUNTA

(*Acrocephalus scirpaceus*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Sylviidae



IXPILLAKO URMAELEAN

Gorputz-luzera: 13 cm
Hego-luzera: 17-21 cm

Argazkia: Bittor Mutiozabal

Lezkari arrunta txori txiki eta izua da, ia beti lezka artean ibiltzen dena. Gorputz liraina du eta lumaje arre-gorrixka. Intsektujale amorratua da eta habia lezkadietako zenbait landare elkarrekin lotuta egiten du. **Iñurritzan** oso hegazti arrunta da eta bertako edozein lezkadietan habia egin arren, ez da ikusten erraza izaten, baina bere kantu zakar eta zaratatsuak asko errazten du bera aurkitzen. Batzuetan gaez ere kantatzen du. Aipatzekoa da, lezketako zurtoin bertikaletan, behetik gora ibiltzeko duen gaitasuna. Migratzailea da eta negua Afrikan, Sahara hegoaldean, igarotzen du.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
			X	X	X	X	X	X	X		

Migratzailea
Habiagilea

LEZKARI KARRATXINA

(*Acrocephalus arundinaceus*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Sylviidae

IXPILLAKO URMAELEAN



Gorputz-luzera: 19-20 cm
Hego-luzera: 24- 29 cm

Argazkia: Aitor Leiza

*Lezkari karratxinak, lezkari arruntaren antz handia duen arren, lezka-txori denetan handiena eta sendoena da. Beste lezka-txoriek bezala honek ere batez ere lezkadiak ditu bere bizileku. Lezkari arruntak baino askoz ere kantu zaratatsu eta zakarragoa du, lezka gaintetik edo lezkadien ertzeko zuhaixka bateko pausalekuren batetik egiten duena; hori dela eta, beste lezka-txoriak baino errazagoa da hau aurkitzea. Kantuan ari denean, burua altxatuta, eztarriko luma zurixkak erakusten ditu. Lezkadietara oso lotua izanik, **Iñurritzan** Ixpillako urmaeleko lezkadietan zein Astikoetan urtero ikusi izan da. Orain dela urte gutxi arte Astin habia egitea ohikoa bazen ere, azken urteetan pase-garaietan bakarrik ikusten da bertan; negua Afrika Erdialdean igarotzen du. Intsektuak besterik ez du jaten.*

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
			X	X			X	X			

Migratzailea

TXIO HORIA

(*Phylloscopus trochilus*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Sylviidae



IXPILLAKO URMAELELEAN

Argazkia: Ricardo Rodriguez

Gorputz-luzera: 14 cm

Hego-luzera: 18-23 cm

Txio horia beste txioak baino horixeagoa da, hanka argiagoak ditu eta kantua melodia handikoa. Hegazti hau ere Europako hegaztirik ugarienetakoa da, baina *txio arrunta* ez bezala, hau Sahara azpiraino joaten da negua pasatzera. Migrazio-garaian ere *txio arrunta* baino ugariagoa da **lñurritzan**. Euskal Herrian ale batzuk ugaltzen diren arren, **lñurritzan** ez da bere habiarik ikusi oraindik. Ugaltzeko garaian, ez da arraroa izaten ar batek hiru eme ezberdin estaltzea. Batez ere intsektuak eta armiarmak jaten baditu ere, udazkenean fruituz ere elikatzen da.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
		X	X	X		X	X	X	X		

Migratzailea

DILINDARIA

(*Remiz pendulinus*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Remizidae



Gorputz-luzera: 11 cm

Hego-luzera: 16-17 cm

Argazkia: Ricardo Rodriguez

Dilindaria beste hegaztietatik hobekien bereizteko, buruan duen mozorro itxurako orban beltz handi bat da. Bere habia eraikitzeke era, hegazti guztietan berezietakoa da; ibai-ertzetako zuhaitzak erabiltzen ditu bere habiak egiteko, forma globularra izaten du habiak eta batez ere makalen edo sahatsen adaska txikietatik zintzilikatuz eraikitzen du, zuhaitz hauen kotoi itxurako haziekin. Europa Iparraldeko ale batzuek negua gure artean igarotzen dute eta horretarako **lñurritza** bezalako hezeguneak dituzte gogoko, batez ere paduretako lezkadiak, sahatsak eta abar elkar tartekatzen diren gunek. Ornogabe txikiak jaten baditu ere, neguan haziz ere elikatzen da.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X										X	X

Migratzailea

ETXE-TXOLARREA

(*Passer domesticus*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Passeridae



IXPILLAKO URMAELEAN

Gorputz-luzera: 14-15 cm

Hego-luzera: 21-25 cm

Argazkia: Andoni Ruiz

Etxe-txolarrea guretzako txoririk ezagunena da. Arrak buru aldea grisaxka du, emeak ez. Munduan zehar den hegatzirik hedatuena da, eta edozein habitetara oso ondo moldatzen den hegatzia izanik, **lñurritzako** hegatzirik arruntenetakoa da. Haziak, fruituak eta ornogabe txikiak jaten ditu eta **lñurritzako** paduretan talde handiak osatzen dira urte sasoi guztietan. Egoiliarra izanik, urte osoan bizi da gure artean eta gizakiak lagatzen dituen hondakinez oso ondo baliatzen da. Ugaltze-garaian etxeetako horma-zuloak erabiltzen ditu batik bat, baina azken aldirian hirietan asko ari dira gutxitzen eraikin zaharrak eta, ondorioz, habia egiteko zailtasun handiagoak izaten ari baita inguru horietan. Europako hiri batzuetan hegazti arruntena izate-tik oso arraroa izatera pasatu da; zergatia ez da ezagutzen, baina aipatzen dira: telefoniako uhin magnetikoak, hiri barneko pestizidak, etab.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

Egoiliarra

ZINGIRA-BERDANTZA

(*Emberiza schoeniclus*)

Ordena: Passeriformes

Familia: Embericidae

IXPILLAKO URMAELEAN



Gorputz-luzera: 15-16 cm

Hego-luzera: 21-28 cm

Argazkia: Bittor Mutiozabal

Zingira-berdantza **lñurritza** bezalako eremu hezeetako ohiko hegazia da. Arrek udan burua beltza izaten dute eta neguan, aldiz, arrek emeen antza handia hartzen dute, biek ala biek kolore nabarra izanez. Dei-kantua silaba bakarrekoa da, txirula hotsaren antz handikoa, eta pausalekutik egiten duen kantua beste berdantzena baino aniztasun handiagokoa da. **lñurritza** osoan ikusten badira ere, lezkadi eta ihitoki ertzetan egoteko joera handiagoa dute; batez ere negu partean ikusten dira eta hotz-boladak direnean ugaritu egiten da kopurua. Hazi-alez elikatzen denez, nahiko lurtarra da. Hegazi honek Europa mailan gainbehera handia izan du eta, inguruko heguneetan arrunta zena, ia desagertu egin da leku askotan.

URTA	OTSA	MART	APIR	MAIA	EKAI	UZTA	ABUZ	IRAI	URRI	AZAR	ABEN
X	X	X							X	X	X

10. BIBLIOGRAFIA OSAGARRIA

- AIERBE, T., OLANO, M. eta VAZQUEZ, J. (2001). *Atlas de las aves nidificantes de Gipuzkoa*. Munibe 52
- ALVAREZ, J. et al. (1985). *Atlas de los vertebrados continentales de Alava, Vizcaya y Guipúzcoa*. Gobierno Vasco
- ALVAREZ, J. et al. (1989). *Vertebrados de la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Gobierno Vasco
- BARBOSA, A. (1997). *Las aves limícolas en España*. Organismo autónomo de Parques Nacionales
- CARRASCAL, L. M. (1989). *Organización de la comunidad de aves reproductoras en las landas montanas del País Vasco atlántico*. Acta Vertebrata
- DE JUANA, E. (1990). *Áreas importantes para las aves de España*. SEO
- DORST, J. (1967). *Las aves en su medio ambiente*. Historia natural. Editorial Destino
- EHRLICH, P.R. (1994). *Guía del observador de aves. Una guía sobre la historia natural de las aves de Europa*. Editorial Omega
- ELPHICK, J. (1995). *Aves. Las grandes migraciones*. Tusquets editores
- FERNANDEZ-CORDEIRO, A. (1990). *Influencia de los vertederos en los desplazamientos y en la distribución costera de las gaviotas*. Misc. Zool., 14: 187-193
- GALARZA, A. eta FERNANDEZ, A. (1980). *Gure hegaztiak*. Petronor
- GALARZA, A. (1987). *Descripción estacional de las comunidades de paseriformes en una campiña costera del País Vasco*. Munibe 38
- GALARZA, A. eta DOMINGUEZ, A. (1989). *Urdaibai. Gernikako itsasadareko hegaztiak*. Bizkaiko Foru Aldundia
- GALARZA, A. (1996). *Abifaunaren banaketa espazio-temporal* Euskal Autonomi Elkargoan. Euskal Herriko Unibertsitatea
- GALARZA, A. eta DOMINGUEZ, A. (2006). *Haizea eta kresala. Kantauriko itsasertzeko izadia*. Bizkaiko Foru Aldundia
- GRANDIO, J.M. eta BELUNCE, J.A. (1990). *Estructura estacional de las comunidades de paseriformes en una marisma del País Vasco atlántico*. Munibe
- HARRISON, C. (1977). *Guía de campo de los nidos, huevos y polluelos de las aves de España y de Europa*. Editorial Omega
- HIDALGO, J. eta DEL VILLAR, J. (2004). *Urdaibai. Uretako hegaztien gida liburua*. Eusko Jaurlaritza
- LARRAÑAGA, J. (1996). *Euskal Herriko Fauna*. Elhuyar
- LARRAÑAGA, J. (1998). *Hegaztien migrazioak*. Elhuyar
- IBAÑEZ, M. (1986). *Fauna de Euskal Herria*. Haranburu editor. Editorial Kriseilu
- ITSAS ENARA ORNITOLOGI ELKARTEA (2002). *Hegaztiak behatzen*. Itsas enara ornitologi elkarte
- MARTI, R. eta DEL MORAL, J.C. (2003). *Atlas de las aves reproductoras de España*. Ministerio de Medio Ambiente
- MUGARZA, J. (1986). *Aves de Euskal Herria*. Bizkaiko Foru Aldundia
- NOVAL, A. (1967). *Estudio de la avifauna de Guipúzcoa*. Munibe 1/2
- SAEZ-ROYUELA, R. eta SANTOS, T. (1985). *Estudio sobre la biología migratoria de las anseriformes en España*. Monografías 38; SEO
- SANTOS, T. (1985). *Estudio sobre la biología migratoria de la tribu turdini en España*. Monografías 39; SEO
- SARASUA, A. (1996). *Eibarko hegaztiak*. Eibarko Udala
- SEO/ BIRD LIFE (2013). *Atlas de las aves en invierno en España*. Organismo Autónomo de los Parques Nacionales
- SOLER, M. (2006). *Fauna en acción. Guía para observar el comportamiento animal en España*. Linx Editions
- TELLERIA, J.L. (1980). *Invernada de aves en la Península Ibérica*. Monografías SEO
- TELLERIA, J.L. (1983). *La distribución invernal de las aves en el País Vasco atlántico*. Munibe 35
- TELLERIA, J.L., DIAZ M. eta ASENSIO B. (1996). *Aves Ibéricas vol I. No paseriformes*. J M Reyero Editor
- TELLERIA, J.L., DIAZ, M. eta ASENSIO, B. (1999). *Aves Ibéricas vol II. Paseriformes*. J M Reyero Editor

